

|||uztarrria|||

|||Azpeitiko herri aldizkaria |||2020ko urtarrila |||223. zenbakia |||



FESTA HAZIETA HAZI

Urtarrilaren 19ko helduen danborradan
beste hiru talde berri aterako dira 20

RES n. 200.25.17.605

Inplanteetan adituak
Azpeitian

Zure zerbitzura
ditugu
teknologia
aurreratuenak



INNOVA
HORTZ KLINIKA

Jose Artetxe kalea 5. Azpeitia

📞 943 02 59 55

MILAR LARRAMENDI



Julio Urkiza etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97



Kabier Muribe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
Tel. 943 85 00 41 www.sukaldeak.eus

www.milar.eus

IZARRAITZ



*zuekin eta
zuli
esker*



uztarria

Argitaratzailea. Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.
Egoitza. Soreasuko sormen gunea 1, (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa. uztarria@uztarria.eus
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. ISSN 1576-7337
Zenbakia. 223.a (2020ko urtarriala)
Urtea. XXI.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 / uztarria@uztarria.eus
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hileroko
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Arnaitz Rubio
Webgunea. www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esandako iritzien erantzukizunik

2020KO URTARRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||||||



iritzia

Inkesta. Zein da 2019an gehien entzun duzun abestia? **13**

mamia

Elkarrizketa. Nora Alberdi gertutik ezagutzen **04**
Klik! 2019. urteak utzi duena irudietan jaso du Uztarriak **16**

Erreportajea. Lagun Onak Mendi Bazkunak indartsu jarraitzen du bere bidean **24**

jakiteko

Atzera begira. Bustinzuriko Errebalaren aldaketak, kale horretako herritarren bizipenetatik **34**



Ba al dakizu uztarriak Lekuz aldatu duela egoitza, eta orain soreasuko sormen gunean duela bulegoa? Uztarria

Izan uztarriaren bazkide **t 943 15 03 58**

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

NORA ALBERDI

sortzailea

“Errealitate zatiak aukeratzea gustuko dut”

Ikus-entzunezkoen munduan hainbat lan egin du azkenaldian Alberdik. Feminismoa oinarri hartuta, esperimentatzen segitzeko prest dago. 📺🎧 Ihintza Elustondo

Azpeitian ikus-entzunezkoei lotuta egin diren proiektu ugarietan utzi du Nora Alberdik bere aztarna: Dapa egitasmoan murgilduta dabil, Kulturaz kooperatibako komunikazio taldeko kidea da, *Korosagasti* filmean lanean aritu da, *Kuraiosa* dokumentala ondu du, argazki erakusketa bat jarri zuen Sanagustin kulturgunean... Ez dago esan beharrik: badu irudiaren munduak zerbait erakartzen duena.

Argazkilaritzan, Kulturaz lanean, dokumentalak sortzen, ikus-entzunezkoetan... Zirrikitu askotan muturra sartuta zabilta. Nola deskribatuko zenuke zeure burua?

Kazetaritza ikastean, kazetari

bihurtu ohi da jendea. Nik ikus-entzunezko komunikazioa ikasi nuen, eta ez dakit zer naizen. Komunikatzailea? Ez dakit hori ote den hitz egokia. Zinemagile ere ez dut ikusten neure burua, dokumental bat bakarrik egin baitut. Sortzailea naizela-edo esango nuke, baina termino hori oso zabalean ulertuta. Esan daiteke irudiaren eremuan gauza batzuk egin ditudala.

Zergatik duzu gustuko irudiaren mundua?

Oso behatzailea naiz, beti begiratzen dut ingurua, errealitatea, egoerak... Ikusten ditugun errealitateko gauza txiki horietatik suposizio asko egin daitezke. Gustatzen zait kamera hartu eta nik neuk aukeratzea enkoatzea; erre-

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1997ko irailaren 4an.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Kulturaz kooperatibako komunikazio lantaldeko kidea.

alitate bat daukazu aurrean, baina kamerarekin zuk zeure mundu ikuskera sortzen duzu. Kamera batekin errealitate osoa hartzea ezinezkoa da, eta gustuko dut errealitate zatiak aukeratzea. Badauka joko hori irudiaren munduak, eta gustatzen zait.

Ikus-entzunezko komunikazioa ikastea amaitu zenuen ekainean, eta zure lehen sorkuntza propioa, ‘Kuraiosa’ dokumentala, aurkeztu zenuen urrian, herrian bertan. Zer harrera izan du lanak?

Ona izan duela iruditzen zait.

Pentsatzen nuen aurkezpena 30-40 pertsona azalduko zirela, eta ehun bat lagun bertaratu ziren. Horietako asko espero nituen emanaldian, baina beste batzuk ez. Dokumentalean esaten diren gauza asko nahiko intimoak eta pertsonalak dira, sexualitatea lantzen da, baita gorputza eta edertasuna ere... Oso eguneroko gaiak dira horiek, baina ez dugu horien inguruan hitz egiten, gai tabuak dira. Feminismoaren mugimendurekin lotutako jendea izan zen aurkezpenean, eta horiek ez zituen asko harritu dokumentalean ikusitakoak. Aldiz, bazeuden beste pertsona batzuk ez dutenak sekula kontakturik izan feminismoarekin eta feminismoak aldarrikatzen duen hainbat



kontzepturekin; horientzat harrigarria izan zen esaldi batzuk entzutea. Jende askok zera esan zidan: "Hau behar nuen". Batzuei begiak irekitzeko balio izan zien *Kuraiosak*. Dokumental hau niretzat barne prozesu bat izan da, erronka bat, baina aldi berean, nahi nion munduari pixka bat hausnarrarazi. Eta gustura gelditu nintzen emanaldi horrekin.

Emakume izatearen ertzak bildu zenituen dokumentalean. Zergatik erabaki zenuen gai horren inguruan hausnartzea?

Ni jaiotzez emakume izendatu nautelako. Dokumentalean lantzen diren hainbat eta hainbat gaik eragiten didate niri, eta iruditzen zait denok hausnartu behar dugula gai horien inguruan. Nire zalantzetatik eta nire barne hausnarketetatik atera ziren gal-

dera denak: gorputzaren ingurukoak, sexualitatea lantzen dutenak... Gai horiek mahai gainean jartzeko, emakume batzuk elkarriketatuta nituen, eta beraien erantzunetako asko nire erantzun posibleak ere bazirela konturatu nintzen.

Zer ikasi duzu prozesu horretan?

Ikasi dudana da ni ere gai naizela dokumental bat egiteko. Unibertsitatean-eta erakusten digute zinemagile batek ez dakit zer film egin duela eta besteak beste obra bat, baina denok daukagu kamera bat eskuratzeko modua, eta denok izan gaitzake artista. Iruditzen zait edozein dela gai horrelako zerbait sortzeko.

Zure sorkuntza mundura zabaltzeko lehen aukera izan zenuen 'Kuraiosak'-rekin. Horren ostean etorri da: 'Bigar-

ren sexua(z). Collage' izeneko film laburra, Iratxe Fresnedarekin batera ondu zuzuna. Nolatan sortu da proiektu hori?

Abuztuan, oporretan nengoela, Iratxek deitu zidan; nire irakasle izandakoa da, eta horregatik eza gutzen dut. Unibertsitatean bagenuen konplizitatea, feminismoaren inguruan asko aritzen ginelako. Eskafandra bildumaren barruan Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* liburua euskaratu behar zutela komentatu zidan, eta horri lotuta, film labur bat egiteko eskatu ziotela. Iratxe lanpetuta zebilen, eta nirekin gogoratu zen. Hasieran pentsatu nuen: "Zer da hau?". Eskafandra kolektiboa oso indartsua da, eta sekulako presioa sentitu nuen, baina aldi berean, banekien Iratxe ondoan izango nuela lanerako orduan, eta

baietz esan nion. Bion artean osatu genuen ikus-entzunezkoa. Simone de Beauvoirren 'Bigarren sexua' lana du oinarri film laburrak, pentsamendu feministarentzat mugarri jo izan dena. Zer jaso duzu film labur horretan?

Beauvoirren bederatzi esaldi hartu ditugu oinarri gisa film laburrerako, eta esaldi horiei lotuta, egoera batzuk planteatu ditugu. Ikus-entzunezkoan esaldiak eta horiei lotutako irudiak ikus daitezke. Maitasunaren inguruko testigantzak hartu ditugu, emakumea eta lana uztartu ditugu, alardeko irudiak ageri dira... Bederatzi esaldirekin halako nahasketa bat egin dugu. Ikus-entzunezkoaren asmoa ez da liburua laburtzea, hari laguntzeko zerbait osatzea baizik.

Egin dituzun azken bi lanetan feminismoak pisu handia du. Bereziki kezkatzen zaituen gai bat al da hori?

Bai. Emakume izendatu nautenetik eragiten didan gai bat da. Unibertsitatean nengoela sakondu nuen feminismoan, batez ere. Orduan hasi nintzen betaurreko moreak jantzi eta gizarte osoari modu horretan begiratzen, gizarteko edozein egoerari buelta bat eman eta etengabe hausnartzen. Asko hausnartzen dut, asko pentsatzen dut, eta feminismoa bada nire bizitzako oinarria edo. Egia esan, asko lagundu dit bizitzan.

Sortzaile zaren heinean ere, feminismoa presente izaten saiatzen zara.

Noski. Emakume sortzaileok baditugu gizonek ez dituzten arazo batzuk. Zinemagintzan hori oso nabarmena da, baita ikus-entzunezkoen eremuan ere; kamerariak, teknikariak... denak gizonez-

“Egia esan, feminismoak asko lagundu dit bizitzan”

“anabasa handi bat ikusten dut ikus-entzunezkoen munduan”

koak dira orokorrean. Adibidez, Durangon [Bizkaia] Euskal Herriko Jardunaldi Feministak egin zituztenean, Landako osoa emakumez beteta zegoen, eta hiru gizonezko zeuden hiru kamerari helduta, han gertatzen zena grabatzen. Gainera, teknikari gehienak ere gizonak ziren. Adierazgarria da hori: ikus-entzunezkoen mundua gizonezkoena da oraindik, alderdi teknikoari lotutako lanetan bai, behintzat. Iruditzen zait ausardia falta dela. Emakumeok ere gai gara halako lanak egiteko, eta ez dugu atzean gelditu behar.

Zu ausartu zara.

Bai, alde horretatik, jauzi handia eman dut. Ikasketetako lehen mailan esan izan balidate hau dena egingo nuela, ez nukeen sinetsiko.

Dapa proiektuan murgilduta ere bazabiltza. Daparen lantaldeko irudi, soinu eta produkzio lanez arduratzen zara. Asteazkenero sormenari lotutako bideo erreportajeak igotzen dituzue Internetera. Zer du berezia proiektu horrek?

Ez da telebistara begira egindako produktu bat. Internetera begira egindako proiektua da, eta forma aldetik ere oso etxekoa da. Irudia kontuan hartzen dugu, zaintzen dugu, baina ez da telebistako produktuen estilokoa; telebistan ez duzu freskotasan hori nabari-

tzen. Guk honako modu honetan lan egiten dugu: hitz egiten hasten da elkarrizketatua, kamera pizten dugu, eta grabatzen hasten gara. Konplizitatea lortzea nahi dugu elkarrizketatzen ditugun sortzaileekin. Sortzailearengana gerturatzea nahi dugu, haiek eroso sentitzea, eta gu beste bat gehiago izatea bere ondoan, nahiz eta kamera eduki eskuan. Telebistan ez da hori askotan gertatzen.

Erabat aldatzen ari da ikus-entzunezkoak kontsumitze-ko modua. Nola ikusten duzu anabasa?

Horixe da hitza: anabasa handi bat ikusten dut. Irudiak, bideoak, sare sozialak... nahaste handia dago mundu horretan. Sare sozialetan zerbait publikatzen duzu, eta beste hamarrek egiten dute publikazioen bat zure atzetik; modu horretan, agian inork ez du ikusten zuk partekatatu duzuna. Sare sozialak dira gaur egun komunikatzeko erreminta; hor egon behar duzu, hor ez bazaude ez zara inor, baina aldi berean, hamar mila gauza eta aukera daude mundu horretan. Sare sozialena mundu bat iruditzen zait. Gu errealitate batean bizi gara, eta sare sozialena beste mundu bat da, mugikorra hartu eta ja beste mundu batean zaude.

Nahiko kaos badago, beraz.

Bai. Orain gazteengana iritsi nahi

“oso behatzaileria naiz, beti begiratzen dut ingurua”

“Batzuei begiak irekitzeko balio izan die ‘kuraiosak’ dokumentalak”

da, eta hori da kezka: nola heldu haiengana. Horretarako, modu berritzaileak topatu behar dira... Zaila da arrakasta izatea edo zerbaitekin asmatzea gaur egun.

Kezka hori ba al duzue Daparen lantaldean?

Gutxieneko pertsona kopuru baten iristea nahi dugu, baina gure txikitasunean segituko dugu aurrera. Hasiera batean, behintzat, asmoa da euskal kultura kontsumitzen duen jendearengana iristea.

Aurrera begira, zer asmo ditzuzu? Zein da zure ametsik handiena?

Galdera handiegia da hori. Orain Daparekin ari naiz buru-belarri, eta ez dakit zer egingo duan etorkizunean. Hori bai, ikus-entzunezkoekin esperimentatzen eta probatzen jarraituko dut. Ikusi dut gai naizela, eta agian, etor daiteke beste dokumental bat. Ez diot aterik ixten ezeri.✱

dica®

s
u
k
a
l
d
e
a
k


d
i
s
e
i
n
u
a

Arretxe 9
20730 Azpeitia

Arrogueta 27
20600 Elbar

www.urrategiinteriorismo.com

Tel: 943 857 244



URRATEGI
INTERIORISMO
bone diseinua

Eguberriz

Urte bat gehiago bizkar gainean. Egutegi berriak paretan zintzilik jarri eta zaharrak botatzeko unea. Atzera begirako tartea aurrera egin nahi bada. Neguan sartzea, egunak luzatzen hastea, eguzkipe goxoaren desira. Soildu dira zuhaitzak baina badator argia, barruetako goxotasuna bilatzen dugu, suaren bueltan ahal bada.

Ez dauka zentzu handiegirik urtea antolatuta daukagun moduak. Enperadore nahiz elizgizon egoskorren eternitaterako nahia darma sakonean. Emakumerik ez tartean. Hone tan ere agintetik ezarriari men, nahiz eta inposatutako denbora neurtzeko modu honek gure barneko denborarekin inolako zerikusirik ez izan. Hala ere, zenbat baldintzatzen gaituzten jaiegunek, Eguberriek nahiz urteko beste zenbait egunek.

Gure aiton-amonek ereintza, uzta jasotze eta abarrak urteko santutegiaren arabera antolatuta izaten zituzten. Baina lurra atondu, egurra moztu, lehortu nahiz lanketarako prest izateko zereginean ilargia nagusi oraindik. Egurrezko habeak mendez mende eraikitzen joandakoaren sostengu.

Bizitza tokatu zaigun garaian badirudi aurrekoetatik jaso duguna zalantzan jarri eta geure ekarpenak gaineratuta, aurrera egiteko garaia dugula. Bidean beldur, ezjakite edo zapaltzen dihardugun zoruaren sendotasunik eza nabariak izan daitezke; aurrekoen lekukotasuna, jakinduria, katebegia traizionatzen ez ote gareen ari, itzalean marmarka.

Aldaketarik gabe ez dago bidea egiterik, ez garatzerik. Habeak, harria, egurra, sua, lurra, basoa, etxea hain sakralizatuak ditugu... Ez da erraza nondik hasi jakitea amets zuten guztia eskaini baina eman dizutenak ondoan ez daudenean.

Etorriko denari lekua

Urtearen bukaera-hasiera honek txikiak gine-nekoak ekartzen dizkigu sarri gogora. Opariak, familia mahaiaren bueltan... dena eder



|||||olatx aranguren|||

|||Aurrekoen lekukotasuna, jakinduria, katebegia traizionatzen ez ote gareen ari, itzalean marmarka



eta argitsu iruditzen zitzaiguneko. Baina memorian aztarka hasten bagara ahalegin handirik egin gabe topatuko ditugu orduan ere bazirela haserrealdiak, gehiegi edandakoa, elkarriz ezkutuan gorde eta botatakoak, sestrak. Familia nahiz jendarte perfektuaren ilusioa barru-barruraino sartu digute, eta zaila egiten zaigu gatazkek, hanka sartzeek, nahi gabe esandakoez, emandako nahiz hartutako minak, negarrek, pozek, ezinek ere egiten gaituztela onartzea. Jendarte zerbait izatekotan hori garelako familia, lagun talde, bikote, hirukote edo nahi den formatua hartuta ere. Ederrak kontsideratzen ez ditugun guzti horiek ere aberasten, gutzen, edertzen gaituztela.

Urte berria dugu aurretik, baliagarria hartu eta gainontzekoari joaten uzteko garaia. Etorriko denari lekua egiteko. Olatuen joan-etorrien antzera, horixe bizitzaren legea.

Kontsumismo ikaragarri batek bultzatzen gaitu generorik onenak etxeokoztat erostera. Jan edanak batzen gaitu. Kalera ateratzen garenean badirudi aurretik ardo batzuk edan gabe ez garelako gai mahai bueltan izango garenekin urtean behingoz otordua elkar banatzeko, bizitzeko. Gerra, gosetea edo gabezia handiak pasatu dituztenen ondorengoak garelako nabaritzen da halakoetan edo kontsumismoak zeharo ito gaituela bestela. Gabezia garaietan baina hobeto eta elkarrekin gaudela ospatu beharrean ardo onduz, txanpainaz, kalte egiteraino irensten ditugun otorduz mozkortzen gara. Nork gehiago egingo, bukaerarik gabeko lehian sartuta ikusteraino geure burua.

Gehiegikeriaz ziprirtintzen ditugu maiteen ditugunak, edalontziak gainezka egiteraino bete, urdailak gaixotu, gibelak usteldu. Ahaztu egiten zaigu gure gehiegikeria munduko pertsona askoren gabeziak egindakoa dela. Ebasten dizkiegun baliabideak zaborretara botatzen ditugula, atzera egiteko aukerarik gabe. Lurra bakarra da.✘

Gabon garaia eta komunitatea

Lerook idaztera eseri naizean apaingarriz josita aurki daitezke bazterrak, girlandak eta argitxoak nonahi, eta jendeari gustatu egiten zaizkiola esango nuke. Haurrak jolasean, gurasoak tabernetan; herriko plaza leporaino. Giroan nabari da Gabon garaia gurean duen karga kulturala, egun bereziak baitira Gabonak, eta iritzi diferenteak topa daitezke sasoi horretan ematen diren dinamiken inguruan.

Bada egun hauetako kontsumo gaixoa salatuko duenik, baita Gabonen magia mistifikaturik kontraesanok bigarren mailaratzeko joera daukanik ere. Salerosketen gorakada beldurgarria dakarren opari festa eta senidetan sentimenduaren aupatzea dira Gabonen oinarrizko elementuetatik bi. Oparia bere horretan, sinbolo bezala nahi bada, zerbait oso duina eta defendagarria iruditzen zait; ekintza altruista, desinteresatua, emateko borondatea adierazten duena, zuek aparteko norbaiten onura bilatzen duena... Eta senidetan sentimendua ere halatsu; ingurukoekin dauzkagun loturak estutzea, indartzea, elkarrekin egoteko beharra, denbora konpartitzeko guraria. Kontua da merkatuak nola baliatzen dituen nardagarriki jatorriz positibotzat dauzkadan elementuok, eta nola irabazien logikari joko borobila eginez –maitasunak asko saltzen du– erabat husten dituen zentzuz. Beldurrak gose denean edozer jaten duen ez nago ziur –Anari dixit– baina merkatua beti da gose, eta komeni bazaio harrapatutakoa irensten du bere organismoan integrazeko.

Familiaz egin nahi nituzke bi hitz, Gabon garaian presentzia berezia hartzen duen nukleoa delako, batez ere. Nire iritzi, gero eta bakartuago gauden norbanakoen heltzea da jendarte hau, eta bakartze hau ekonomia krisialdi bortitz baten testuinguruan ematen dela kontuan izanda, familiaren funtzioa oinarritzkoa eta fundamentalak da jende askorentzat, eta gazte gehienontzat. Ezin da gutxietsi



Jon gurrutxaga

Jende askorentzat kartzela da familia eta jende horrek guztiak komunitate bat behar eta merezi du bizitzeko

trukean deus eskatu gabe zuek dena emango duen egitura bakarraren garrantzia. Orokorki, komunitate zantzuak antzeman daitezke azken lubakia dela esango nuke.

Miseriaren aurpegiak


Ez nuke, halere, familiaren apologian erori nahi, birpentsatu beharreko eta erro-erro kritika merezi duen instituzioa da familia ere. Jende askorentzako kartzela da familia eta jende horrek guztiak komunitate bat behar eta merezi du bizitzeko. Desegituratutako etxeetan bizi direnak, bankuek etxea desegituratu nahi dietenak, bakarrik bizi diren adinduek, adinduek zaintzen dituzten emakume migranteak, arrazagatiko edo identitate sexualagatiko bazterkeriak azpiratuak... miseriaren aurpegi ezberdinak dira, iraute hutsera behartuak. Behar materialak –aterpea, beroa, jatekoa– eta materialak ez direnak –kariñoa, entzungo gaituen norbait, gauzatuta sentituko garen espazioak– behar ditugu guztiok. Elkartasunezko harreman horizontalak –karitateaz bestelakoak– zentroan jartzen dituen komunitate sendoak behar ginituzke, hotzetik, gosetik, eta arazo bakoitzetik irtenbidea izan dezagun borrokatuko direnak. Pentsatzen baitut, urte sasoi honetan, hotza hotzagoa izango dela abarorik ez daukanaren hezurretan, eta lehenaz gain, bakardadea berunezkoa bihurtuko dela jendarte honek zokora errefusatuentzat.*



Jon Gurrutxaga

Pausoka pausoka bagoaz aurrera

**KALITATEZKO
IRAKASKUNTZA
EUSKARAZ**
Otik 18 urtera



ATE IREKIAK

Urtarrilaren 27an eta 28an HH
Euskal Herria, 50

Urtarrilaren 29an LH
Perdillegi, 2

publikoa euskaldunainklusiboa

AZPEITIKO
UZTARO
HAURRESKOLA

Haurreskolak

UZTARO HAURRESKOLA
Euskal Herria, 47, 48, 49 - AZPEITIA
943 81 31 90
uztaro.azpeitia@haurreskolak.eus



AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI

**AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI HLHI**
Euskal Herria 50 - AZPEITIA • 943 81 26 97
012320as@hezkuntza.net • www.karmeloetxegarai.eus

**UROLA
IKASTOLA BHI**

UROLA IKASTOLA BHI
Perdillegi 3, AZPEITIA
943 80 93 35 • urolaikastola@urola.eus
www.urola.eus

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Hirigintza eta euskara

Hirigintzako Plan Orokorriari Eragin Lingustikoaren Ebaluazioa egin beharko diote udalerriek. Azpeitian plan partzial batzuk egin dituzte, hala nola Esklabak-Iturtzulo eta Alberdienea eremueta.  Julene Frantzesena

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalek aurrerantzean legez egin beharko dute Hiri Antolamenduko Plan Orokorriaren (HAPO) Eragin Linguistikokoaren Ebaluazioa (ELE), proiektu zehatzek herrien egoera soziolinguistikoa izan dezaketean eragina neurtzeko eta, beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak hartzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Uemak orain dela bi agintaldi garatu zuten ELE, hirigintza esku hartze batek izan dezakeen eragin linguistikoa aztertu ahal izateko. Aldiz, 2016an hartu zuen ELEk legea izatera, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legea onartu zenean, baina hemendik aurrera, jaur-laritzak argitaratu duen dekretua tarteko, beharrezkoa izango da ebaluazioa egitea.

Urola Kostako herrietan ari dira dagoeneko pausok ematen gaiaren inguruan. Orio izan zen lehe-

nengotarikoa HAPOari ELEa egiten. Azpeitian, berri, indarrean den hirigintza planari ez zioten ELERik aplikatu bere garaian, baina plan partzial batzuetan egin dute dagoeneko ebaluazioa; hain zuzen ere, Esklabak-Iturtzulo eta Alberdienea eremueta. 2018 eta 2022 urteen artean babestutako etxebizitzak zein etxebizitza libreak eraikiko dituzte, besteak beste, eremu horietan –batzuk eraiki dituzte dagoeneko–, eta udalak Uemaren laguntzarekin egin zuen ebaluazioa.

Euskararen arnagunea da Azpeitia; izan ere, 2016ko euskararen ezagutza datuen arabera, azpeitiarren %83,67 da euskalduna. Dena den, azken hogeitun urteotan 3,7 puntu egin du behera euskaldunen zenbatekoak. ELERen emaitzen arabera, etxebizitzek "nahiko eragin positiboa" izango dute herriko euskararen bilakaeran.*



Azpeitiko irudi bat.  Uztarria



Ibrahim Balde eta Amets Arzallus.

ESANA DAGO

“Migranteena gure herria zeharkatzen duen errealitatea da”

“Migranteekin harremana eraikitzerakoan kontuan hartu behar diren gauzez jabetzeko balio izan dit [liburuak]”

AMETS ARZALLUS
bertsolari eta idazlea

“Espero nuena baino jende gehiagok entzun ditu kantua”

“Kontzertu bat ematera iristea gustatuko litzaidake”

DEÑE GARCIA-BRAVO
abeslaria

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

 **Aiortza Autoak**

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonos.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Barkatu

Zerbait oker eginaren damua erakutsi eta berriro horrelakorik ez egiten saiatuko zarela agindu. Horrelako zerbait esan nahi duela uste dut *barkatu* hitzak. Oso oker ez banago, dotriñan ikasitakoak zeharo ahaztu ez bazaizkit behintzat, jainko jaunak ere bere semea gure artera bidali eta gure bekatuak barkatzeko bere seme maitea gurutzean iltzatu zuen. Bai, gero hirugarren egunera piztu zen.

Kontua da, hitzen esanahia ere, energiaren antzera, eraldatzen joaten dela. Hitzei guri komeni zaigun esanahia itsasten diegu. Eta

barkatu hitzarekin hori gertatzen ari da. Esango nuke nik, *barkatu* hitza lehen orain baino garestiagoa zela. “Barkatu” esatea kostatu egiten zitzaigun. Batetik, gure okerra onartzen genuelako; eta bestetik, okerra zuzentzeko borondatea azaltzen genuelako.

Gaur egun, *barkatu* hitza oso merkea da. Erraz, errazegi erabiltzen da. Berehala barkamena eskatzen dugu baina ez damua erakusteko; *barkatuk* erreseteatzeko balio digu, borragoma lana egiten du. Barkamena eskatzearekin baietz, zerbait gaizki egin dugula ahopean onartzen dugu baina urkoari esaten



txetxu urbieta

diogu ahazteko, kitto, pasatu dela eta goazen aurrera. Eta handik bi minutura oker berdina egin eta berriro “barkatu” esan eta lixto. Hitzak berak errurik ez badu ere, *barkatu* hitza gorrotatu egiten dut. Entzun orduko sutan jartzen naiz, nola liteke hain hitz ederrari eta hain ekintza txalagarriari balio osoa kendu. Barkatuko didazue, baina barka ezina da.

Urte osoan gaizki egin edo idatzitakoak zuek ere Urbietari barkatu, ez dut uste lan handirik izango duzuenik. Eta indarrean den 2020ak, tarteka bada ere, poza ekar dezala zuen bihotzetara.✘

IKUSTEKO!



▲ OBJEKTU HEGALARI EZEZAGUNEN BAT, GOENAN?

Goenako zelaietan auskalo nola eta nork egindako borobil formako irudi hau ikus zitekeen abenduaren gan. Norbaitek gozatua hartuko zuen, agian, ibilgailuren batekin ‘derrapeak’ egiten. Edo, agian, objektu hegalari ezezagunen bat jaitsi ote zen, bada, Goenako zelaira? 📷📍 **Uztarría**✘

ABENDUKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Bizia ematen duen azoka

EKONOMIA. Ikaragarria da Sanjuandegiko Azoka Herritik bezalako egitasmoek auzoei nolako bizia ematen dieten ikustea. Giro paregabea, postuak eta gunea musika doinuz alaituta. Baina kontuan izan behar dugu gure esku dagoela herriaren bizia bermatzea. Herrian ditugun artisauek eta denda txikiak sendotu behar ditugu. Finean, horiek gabe Azpeitia lo egiteko herri bilakatzeko arriskua dago.



ieltxu caballero



Plastikozko uholdea

FESTAK. Ospatu dugu Santo Tomas eguna, baina pixka bat hausnartu beharra dago. Ederra da talo goxo bat jatea sagardoaz lagunduta, baina beharrezkoa al da zakar guztia lurrera botatzea? Etxean gauza bera egiten al duzue? Lotsagarria zen lurrian zegoen plastikozko edalontzien uholdea. Ziur kontzientzia garbitzeko Greta Thunbergen bideoen bat elkarbanatzea nahikoa izango dela.



Bete al dituzu asmoak?

FESTAK. Berrito ere hemen izan ditugu Gabonak; batzuentzat ilusio hadiko garaia izaten da, beste batzuentzat gutxiagokoa, eta umeak azken txanpan ondo portatzen dira Olentzerok eskatutako guztia ekarriko dien esperantzaz. Familian igarotzeko festak dira, aurrean joan

diren edo hainbat arrazoiengatik mahaian falta diren senideak gogoratzeko uneak. Urtearen balorazioa egiteko garaia, eta horrekin batera urteko asmoak ez ditugula bete konturatzekoa. Eta zuk, bete al dituzu zure asmoak?*

INKESTA

zein da 2019an gehien entzun duzun abestia?

I. Elustondo/M. Etxaniz

KARIN NATALIA KUPCHIK

46 urte



“Musika asko entzun ohi dut. Baina, agian, Brigade Loco

taldearen 'Aurrera doa' izango da 2019. urtean gehien entzun dudana, gazteek asko eskatzen didate-eta tabernan. Rotten XIII taldearen musika ere asko eskatzen dute”.

MIKEL MAIZ

26 urte



“Ez naiz oso musikazalea, baina asko gustatzen zait

Oliba Gorriak taldearen 'Pravda' abestia”.

AITOR BENGOETXEA

38 urte



“Portico Quartet taldearen 'Ruins' abestia izango da

gehien entzun dudana. Kantua instrumentala da, jazz berria egiten duen laukote batena. Sekulako sorpresa hartu nuen talde horrekin”.

MIKELE LAPEIRA

19 urte



“Spotify aplikazioak abisatu dit zein den urte osoan

gehien entzun dudana abestia: Unidad Alavesaren 'Su eman'. Aldaketarako grina pizten du kantuak, eta asko gustatzen zait”.

Lau urdailetatik pasatuta

Gure aita zenak –gera garaitik eta hargatik beragatik germanofobia, eta, aurkaritzaz, anglofiloa– “no news, good news” esan ohi zuen, baxu antzean, dena ondo zegoenean, beharbada garaio-tan albisteek gauza onik ez zekartelako. “Zaharra berri” diogu, albisterik ez egoteak dakarren asperdura ukituaz, baina baita gertakariak, patuak horrela aginduta edo, errepikatzen direnean ere. Horrelakoak iruditzen zaizkit Gabonak; erlojua geratuta egongo balitz bezala, ezer gertatuko ez balitz bezala bizi dugun garaia. *Deja vua*. Linboa. Zorion eta urte berri on.

Ez neukan askorik disfrutatzen itxaropenik. Zahar-berri etsigarriak eta *bad news*ak bata bestearen atzetik izan ditugu, talo-txorixoak iritsi aurretik. Hango eta hemengo gaitza eta emaitza garrantza! Inguruko zoritxarra ezin onik eraman eta burua ezin jasota ibili gara. Laiotz bihotza. Egoistak gara, izan ere. Ni bai, behintzat: ezin ba zorionekoa izan beste-

imanol amiano

en zoritxarrean. Saiatuko ginen, hala ere. Egutegiak hala agintzen du.

Olentzeroren etorreraren aurreko txikiaren ilusioak irribarreraren bat aterako zigun, korrika saio xilbestrea ere eginda izango gara, afalaurreko poteo go-goangarriak bezala, eta ohiko juntadizo pozgarrietako txantxak eta algarak dagoeneko mahaiaren buelta horretan ez zeudenen oroitzapeneko besarkada eta negar malkoren batekin nahastuko genituen, elkarri zori onen kantua opa geniola, ezen zori txarrak inork deitu gabe bakar-bakarrik kantatzen baitaki.

Zorion eta urte berri on. Eguneroko txikieriak irentsi ezinik ibiltzen banaiz, benetako arazoak ezarrian ez atzera ez aurrera geratzen zaizkit maiz; baina, idi zaharren modura –eta Gabon gau, Egu-berri egun, Gabon zahar eta Urteberri eguneko oturuntzekin batera–, lau urdailetatik pasatuta izango ditut dagoeneko.*

galdetzen hasita, urte berriarekin igoko al dituzte prezioak herriko tabernetan eta saltokietan? Uztarrria

Agur, jaiotza!

Jaiotza jarria dugu etxean, udazken kolorezko zuhaitz-hostoen argiz inguratua. Jesus haurtxoa aitarren besoetan, musua musuan, eta Maria Joseren lepora burua ezitiki makurtuz. Samurtasuna dario. Gabon Jaiotzari begira, gizakion bizitzak, bizidun guztien elkarteak, unibertso osoak eder eta on dirudi. Me-rezi du bizitzea. Agur zuri, Jaiotza!

Zergatik jaiotzen da gero eta haur gutxiago gurean? Emakume bakoitzeko 1,31 haur iaz Euskadin, biztanle-kopuruari eusteko ezinbestekoa den 2,1 etik oso behera. Ez gara bakarrak: Europako estatu guztiak 2tik behera daude, baita Amerika, Ozeania eta Asiako herrialde guztiak ere. Afrika, aldiz, 2tik 7ra bitartean dago; nabarmen ugaltzen ari da. Gehiegi.

Eta gu gehiegi urritzen? Ezetz esango nuke, baina bistan da herrialde “garatuetan” haur gutxi sortzen dela. Zergatik ote? Egoismoak eta fede gabeziak gora egin dutelako, Frantzisko aita sainduak esan duenez. Ez nago ados. Jaiotzek behera egin badute,

joxe arregi

ez da bikoteak egoistago eta fedegabeago direlako, familia gehienak gero eta pobregago direlako baizik, Herodes gutxi batzuen gutizia aseeginagatik, eta beren etorkizunaz eta planeta zanpatu honen etorkizunaz beldur direlako. Nola nahi dugu bikote gazteek bi ume edo gehiago izatea, ezin badute lana eta familia bateratu, ez etxea ordaindu, ez bi ume mantendu?

Eta beste gauza bat: gizakiok gehiegi gara Lurrean, eta nahitaez gutxitu beharra daukagu, bai Afrikan eta bai hemen, bizidun guztien arteko oreka izango bada.

Berriro diot: agur eta ohore dagiot jaiotzari. Agur gure planetan duela 4.000 milioi urte gertatu zen eta ziur aski beste hainbat planetatan gertatu den biziaren jaiotzari! Agur atomo bakoitzean, hosto bakoitzean, gozatzen duen izaki bakoitzean, gizaki on eta zoriortsu bakoitzean agertzen den Biziaren Graziari!

Agur zuri, Nazareteko Jesus, Maria eta Joseren seme bedeinkatu, biziera onaren eta gizadi berriaren lekukoari! Agur zure jaiotzari, gure etengabeago jaioberritzeari!*



#6



TXAPA

GUTXIYO TA

NARRU

GEHIYO



Zaintza irauliz... (I)



felipe murillo

Zaintza da iraultza”, esan zidan aspaldi lagun on batek. Arrazoa ematen diot ordutik eta horretan oinarritu dugu gure harremana, baina zaintza erdigunean jartzea erantz asko dituen kontzeptu lausoa izan daiteke.

Gorputzaren eta osasunaren zaintza nahiko helburu iraultzaileak lirateke urtea hasi berri dugun garaiotarako. Horregatik, agian, urte berriarekin, Kirol Patronatuaren eskaintza zabalari men egingo diogu.

Gure adimena eta arima ere zaindu ditzakegu. Horretarako “tristuraren industriak gurtzat sortu dituen antsiolitiko eta kantua,

makrobiotika eta liburuak, konstelazioak, terapiak, sare sozialak eta farmazi”-en artean aukeratu dezakegu (badakizue, Anariren aipua bat idazteko edozein aitzakia zait baliagarri).

Agian, gu zaintzeko modu onena planeta zaintzea litzateke. Elikadurari (jaten duguna omen gara) eta, bide batez, jasangarritasunari arreta jartzen badiegu, bi txori tiro batez (barkatu, natura zaindu nahi badugu tirorik ez txoriei). Beraz, azken belaundiko mugikorren Greta Thunbergen berriak irakurtzen ditugun bitartean agertu zaigun arropa jasangarriaren iragarkiari sakatu diogu, modan egon

daitekeen zerbait *online* erosi dezakegulakoan. Elikagunera erosketak egitera goazela eskegi dugu erosi berri dugun jertse naturazalearen irudia sare sozialetan: #izanaldaketa, #fridaysforfuture; bi txori tiro bakarrean.

Eta horrela ibiltzen gera erosiz sortuz gure aukerak, atsedetik hartu gabe. Gure zaintza ere eros daitekeelako. Erosen dugun gure zaintza erakusten dugulako. Zaintza erdigunean jartzea norbera zentro bihurtzea dirudielako aspaldian.

Eta zer egiten dugu besteenganako zaintzarekin?*

Erotikan Plax!



haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)

Kimikaria da Iñaki Bastida, eta hilabete honetan berari egokituko zaio galderei erantzutea.

Zerk erakarri zintuen kimikaren esparrura?

Mundu ezezagun bat ezagutzeko grinak.

Gure egunerokoan, kimikak ba al du eraginik?

Erabatekoa. Gu kimika gara, eta egiten dugun guztiak ehuneko ehuneko du lotura kimikarekin.

Zure bilakaera erotikoa kimikoki azaldu beharko bazenu, nolakoa litzateke?

Hidrogenoa bezala, ikusten ez den gas bat, baina txispa batekin leheritu egiten dena.

Pertsonen artean kimika dagoela esan izan da. Zer esan nahi du horrek zuretzat?

Elkarren arteko substantzia batzuk, feromonak adibidez, dantzan jartzea.

Eszitazioa. Nola esplikatu daiteke hori kimikari lotuta?

Normalean lasai dauden molekula aztoratu egin direla.

Mundu erotikoa zer ikertzea gustatuko litzazuke?

IÑAKI BASTIDA

Adina. 28 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Bilbo.
Lanbidea. Kimika ikerlaria.



Denok ondo pasatzeko beharrezkoak diren osagaien identifikazioa.

Klitoriari buruz oraintsu arte ez da ikerketarik egin.

Zer ondorio ateratu ditzakezu?

Zoritxarrez, eremu honetan ere gizona dago erdigunean, eta gizonok gizonontzat ikertzen dugu. Al-

daketa, astiro doan arren, aurrera doa.

Maitasun kontuetan emaitza onak lortzeko gomendiorik?

Errespetua eta komunikazio ona.

Laboratorioek zergatik ematen dute morboa?
 Ezjakintasuna eta irudimenagatik.

|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688 89 79 20
 Hitzorduak, urtarrila: hilaren 22an (16:00-19:00) eta 11n (10:00-13:00).

Iñakiren alde bihurria ateratzeko formulak zer osagai ditu?

Konpainia eta umore ona.

Bizitza erotikoa hobetzeko urte berrirako erronka bat?
 Gauza berriak ikertzen jarraitzea eta praktikan jartzea.*

▼ URTARRILA.

Hamarkada luzez itxita egon ostean, urtarrilaren 25ean zabaldu zituzten Basazabal jauregi eraberrituaren ateak. Inaugurazio ekitaldia egin zuten Enparan kaleko eraikinean, eta ikusmina sortu zuen haren irekierak; izan ere, herritar ugari izan zen XIV. eta XV. mendeen artean eraiki eta orain goitik behera eraberritu duten babestutako ondare historikoa bisitatzen. Erakundeetako ordezkari ugari ere izan zen irekiera ekitaldian. Eraikina zabaldu zutenetik era askotako ekitaldiak nahiz ikastaroak egiten dituzte Basazabal jauregian.



▲ OTSAILA.

2013an zapaldu zuen lehen aldiz Berri Txarrak taldeak Sanagustin kulturguneko oholtza, 'Haria' diskoaren aurkezpen biraren azkenetan. Iaz, otsailaren 21ean, bigarren eta, agian, azken aldiz jo zuen kulturgunean, taldeak 2018an iragarri zuen etenaldi mugagabearekin batera etorri zen Ikusi Arte biraren barruan, Beude mini-biran. Berehala agortu ziren sarrera guztiak.

2019ak utzi duena

2019ak albiste ugari utzi zituen herrian. Horietako batzuk bildu ditu Uztarriak, urtearen errepasoa egiteko. 📌 Nerea Uranga eta Ihintza Elustondo 📍 Uztarria



▲ MARTXOA.

Hainbat ardatzetan oinarritutako greba feminista izan zen iazko Martxoaren 8koa: zaintza, pentsiodunak, ikasleak eta kontsumoa. Deialdiarekin bat eginez, ehunka emakume atera ziren kalera egun osoan zehar antolatutako ekitaldietan parte hartzera. Besteak beste, goiko irudian ikus daitekeenez, mosaiko erraldoia osatu zuten eguerdian kioskoaren bueltan. Mahai ingurua, bazkaria, tailerrak, manifestazio zaratatsua... ere izan ziren herrian, Basanderiek asanblada feministak antolatuta.

► APIRILA.

Apirilaren 12an igaro zen 21. Korrika Azpeititik. 2017. urtean ez bezala, egun argiz, 09:15 inguruan, iritsi zen Azkoititik Loiolara euskararen aldeko egitasmoa, eta kalerik kale jendetza biltzen joan zen Korrikara. Eskuz esku herriko dozenaka eragilek eraman zuten lekukoa. Alde Zaharrean ibili ostean, Zestoarako bidea hartu zuen Korrikak, eta segidan, ikastetxeetako ikasleek Korrika Txikia egin zuten Alde Zaharrean barrena. Haur, heldu eta gazte, milaka herritarrek egin zuten bat AEK-k antolatutako euskararen aldeko ekimenarekin.





▲ MAIATZA.

EH Bilduk irabazi zituen udal hauteskundeak maiatzaren 26an. Gehiengo osoa berretsi zuen koalizioak, botoen %57,11 lortuta; EAJk, berriz, bozen %38,49 jaso zituen. Nagore Alkortak alkate kargua hartu zuen ekainaren 15ean.

▼ EKAINA.

Julen Egiguren pilotariak ekainaren 24an egin zuen profesionaletan debuta, eta ondo joan zitzaion lehen neurketa. Izan ere, 22 eta 13 nagusitu zen, Zabaleta bikote zuela, Zabalarren eta Martijaren aurka Eibarko Astelenan jokatu zuen partidan. Gertukoen babesa izan zuen pilotariak.



◀ UZTAILA.

Odol Emaileen Elkarteko boluntarioek eta Lagun Onak futbol klubeko kideek bota zuten San Inazio festen hasierako suzeria, eta txupinarekin batera lehertu zen festa. Futbol taldeak 75 urte bete zituen iaz, eta horri lotuta, hainbat ekintza egin zuten urte guztian zehar: liburua kaleratu, argazki erakusketa jarri, afaria antolatu...

▶ ABUZTUA.

Kohlberg Kravis Roberts (KKR) Ipar Amerikako inbertsio funtsak Gallardo Balboa Taldea erosi zuen abuztuan. Europako Batzordeak eman zion erosketarako baimena KKRri, eta ordutik funts horrenak dira Corrugados Azpeitia eta Corrugados Lasao. Era berean, Elmubas Petfood Group erosi zuen Portobello Capital arrisku kapitalen kudeaketa enpresak, ekainean.





◀ **TRAILA.**

Irailaren 16an hasi zen 11/13 sumarioko 47 auzipetuen kontrako epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalean. Auzipetuek beren kontrako akusazioak onartu zituzten, eta akordioa lortu zuten fiskalarekin. Urtebete eta sei hilabeteko eta bi urtera arteko zigorra ezarri zieten 45 auzipeturi –tartean Eneko Iburgureni–, eta, horrenbestez, espetxea saihestu zuten. Uztailean, haiei babesa adieraziz, argazki jendetsua atera zuten plazan.

▼ **URRIA.**

Lapatxeko konpostatze planta itxita dago. Urola Erdiko Mankomunitateko udalerrietan jasotako hondakin organikoak konpost bihurtzen zituen azpiegitura behin betiko ixtea erabaki zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) urriaren 3an egindako batzarrean.



▲ **AZAROA.**

Joxe Mari Korta saria jaso zuen Maria Angeles Amenabarrek azaroaren 19an, Eusko Jaurlaritzako lehendakaritzan, Gasteizen. Zubiola kooperatibaren kudeaketa arduraduna izan zen hemezortzi urtez Amenabar, eta Joxe Mari Kortaren Bidetik fundazioak proposatuta saritu zuten.

▶ **ABENDUA.**

'Egunean Behin' jokoaren lehen finala jokatu zuten abenduaren 14an Sanagustin kulturgunean. Codesyntax enpresak garatutako aplikazioak sekulako arrakasta izan du, eta ikusmina sortu zuen saioak. 102 lagunek parte hartu zuten, eta Eneko Agirrezabal nagusitu zen.*



U

rtreak dira plazan talde gehiago ez direla kabitzen dioen zurrumurrua herrian entzuten dela, baina ez da horrela izango; izan ere, aurtengo San Sebastian bezperako helduen daborradan hiru talde berri izango dira: Izarraitzpe, Inpernue eta Ilunpe soziedadeetako taldeak. Ia dena prest dute dagoeneko; entseguetan murgiltzea soilik falta zaie, nahiz eta beren kasa egin duten entseguren bat edo beste. Jantzien, danborren nahiz afariaren gaineko xehetasunak lotzen ari diren honetan, Uztarrria hiru taldeetako kideekin izan da elkarteetan.

Izarraitzpekoak, prest

Izarraitzpe elkarteko kideek Urolako treneko langilez jantzita joko dute danborra. Elkarte horretako kide dira Ioritz Otaegi (Azpeitia, 1988), Ainhoa Zubizarreta (Azpeitia, 1977), Jon Lasa (Azpeitia, 1978) eta Ainhoa Badiola (Azpeitia, 1984), eta dagoeneko sancebastianak iristeko "oso gogotsu" daude.

Izarraitzpe elkarteak 1976. urtean sortu bazen ere, orain arte ez du danborradako talderik izan. Badiolak dio "grinak" bultzatu dituela danborradako taldea sortzera: "Betidanik izan dugu taldea sortzeko gogoia. Horregatik, hiru lagun elkartu eta lanean hasi ginen, buruari buelta batzuk ematen". Otaegik erantsi duenez, "elkarteko kideek nahiz ingurukoek ondo hartu zuten proposamena", eta "pixkanaka lanean" hasi ziren.

Aurtengo Izarraitzpekin danborra jo-



Izarraitzpe soziedadeko kideak.

Eta beste hiru

Sansebastianetako helduen danborradan hiru talde berri izango dira: Izarraitzpe, Ilunpe eta Inpernue elkarteetako talde bana. 📝📷 M. Etxaniz eta J. Frantzesena



tzen irtengo diren lehen aldia bada ere, ez da danborradan parte hartuko duten lehen urtea. Zubizarretak Ziripot taldearekin jo izan du, "Ziripot sortu zenetik, urtero-urtero". Otaegi Alkartasunarekin irten izan da, Lasa Arrantzaleekin eta Badiola Orkatzetik. Orain, arropa berriak jantzeko garaia iritsi zaie laurerei, eta aurren trenbideetako langileen trajeak soinean irtengo dira San Sebastian bezperako danborradan.

Egin duten jantzia atsegin dute, eta gustura daude emaitzarekin. "Jantzi eroso egitea genuen helburu: epela, eta aldi berean, polita. Lortu dugula uste dugu. Gainera, Azpeitiarekin lotura izango zuen zerbait egitea nahi genuen, eta ideia polita bururatu zitzaigun. Urolako trenak Azpeitian izan zuen garrantzia ikusita, bertako langilez jantzea erabaki genuen", kontatu du Badiolak. Burdinbidearen

Euskal Museotik hartu zuten jantziaren ideia: "Azpeitiko trenaren museoan arropen erakusketa zabala dago, eta handik hartu genuen ideia. Hau da, jantziko dugun trajea ez dugu guk asmatu. Trajea existitzen zen, baina guk gure erara moldatu dugu". Behin ideia garatuta zutela, udalean aurkeztu zuten proposamena, eta hango ordezkariak "oso ideia ona" iruditu zitzaizela esan dute Izarraitzpekoek.

Bozketa eginda erabaki dute taldearen egitura: "Guzti boto bidez eta eztabaidatuz erabaki dugu, denok ez gentozelako bat zenbait kontutan. Batzuk banderaduna ateratzearen alde zeuden, eta beste batzuk, aldiz, ez. Erabaki guztiak hartu aurretik izan dugu eztabaidatzeko aukera, baita zuzendari txikia atera behar al genuen ala ez erabakitzeko ere. Taldeko ia guztiok elkartu ginen bilkuran, eta banderaduna eta kantinerak ateratzea erabaki genuen, mutil zein neska izan. Gauza bera zuzendari txikiarekin". Danbor-jotzaile guztiak, emakume zein gizon, jantzi berdinekin irtengo dira. "Ez dago bereizketarik", azpimarratu du Otaegik.

Afariari dagokionez, Izarraitzpekoek kanpotik eskatuko dute janaria. "Danborradan talde gisa aterako garen aurreneko aldia dela jakitun, erabaki genuen guztioi dagokigula festaz gozatzea", kontatu du Otaegik. "Gainera, taldekide gutxi gara elkarteko bazkide, eta horiek aritu beharko genuke sukaldean", gaineratu du Zubizarretak.

Entseatzan hasteko gogoia dutela diote, eta danborradako entsegu ofizialez aparte, zenbait saio egingo dituzte elkartean bertan. "Egia esan, komeni zaigu entsegu batzuk egitea, inoiz ez baitugu elkarrekin danborradako piezarik jo. Gainera, zuzendaria ere berria da. Lehenbailehen jo eta su hasi beharko dugu entseguekin, bestela txapa hotsa izango da nagusi ezorduan", kontatu du Lasak, barre artean.

Danborra nahiago badute ere, txapa joko dute Izarraitzpekoek, eta zapore gazi-goza-rekin gelditu direla diote: "Duela urte batzuk zozketa bidez erabakitzen zen talde berrietako nork jotzen zuen daborra eta nork txapa. Pentsatzen genuen orain ere horrela izango zela, baina ez. Orain, udalean eskaerak eginen diren hurrenkeran egiten omen dute esleipena; hau da, azken taldeari danborra eman badiote, hurrengoari txapa. 2008an zozketa egin behar zela omen zioen legeak; orain, berriz, zozketarik ez egiteko. Ez dugu oso ondo ulertzen, baina tira...". Otaegik dio, dena den, ondo pasatzea dutela helburu: "la

|||DATUAK|||||

Hiru talde berrien inguruko hainbat xehetasun.

IZARRAITZPE.

Taldekide kopurua. 46 lagun: 42 danbor-jotzaile, zuzendaria, zuzendari txikia, banderaduna eta bi kantinera.

Jantzia. Urolako treneko langileak.

Zuzendaria. Iskander Etxezabal.

INPERNUE.

Taldekide kopurua. 49 lagun: 44 danbor-jotzaile, zuzendaria, zuzendari txikia, banderaduna eta bi kantinera.

Jantzia. Gipuzkoako Tertzioa.

Zuzendaria. Jokin Iriondo.

ILUNPE.

Taldekide kopurua. 54 lagun: 50 danbor-jotzaile, zuzendaria, zuzendari txikia, banderaduna eta bi kantinera.

Jantzia. Zuberoako maskarada.

Zuzendaria. Aitor Zubizarreta.

guztiok nahi dugu danborra jotzea, baina dena ez dago gure esku. Txapa jo beharko dugu, baina izugarri ondo jotzen saiatuko gara, eta ziur primeran pasatuko dugula".

Danborradako taldea eratzeko prozesua nekagarria bezain polita izan dela dio Badiolak, baina bukatzeko gogoia ere baduela. Gainerako taldekideek, aldiz, Badiolak egingdako lana azpimarratu eta nabarmendu dute: "Ainhoak lan handia egin du, eta horrek asko erraztu du gainerakoon jarduna. Aitortza guttia merezi du".

Izarraitzpeko kideek sansebastianak atsegin dituzte, eta horregatik daude festak noiz iritsiko zain. Otaegirentzat, sansebastianak "oso festa herrikoiak eta parte hartzaileak" dira, eta horregatik ditu gustuko. Gainerakoak bat datoz: "Danbor-jotzaileen festak dira sansebastianak. Dagoeneko gutxi dira plazan danborrada ikusten egoten diren herritarrak, ia denok parte hartzen baitugu festan".

Inpernue, berriz ere

Inpernue soziedadeak 75. urtemuga izan zuen 2019an, eta urteurren borobil hori baliatuta, danborradarako taldea osatu dute. Ez da, baina, Bustinzuriko Errebaleko soziedade horrek taldea kaleratuko duen aurreneko aldia. Azpeitiko danborrada sortu eta gutxira hasi zen Inpernue ere San Sebastian bezperako desfilean ateratzen. Sasoi hartan sukala



Inpernue soziedadeko kideak.

dari jantzita ateratzen ziren danbor-jotzaileak. 1978-1979 urteen bueltan utzi zuen taldeak danborrada; hain zuzen ere, zezenzaleei pasatu zizkieten danborrak.

Ordutik pasatu da hainbat urte, eta talde berriak jantzi berriak izango ditu aurtengoan: Gipuzkoako Tertioko taldea izango da Inpernuko kideena. "Ez geneukan garbi zer traje nahi genuen, eta hainbat aukeraren inguruko bozketa egin genuen", azaldu du Jabier Etxaniz *Kinttelak* (Azpeitia, 1959). Inpernuko taldearen sorreran laguntzen aritu da Kinttela soziedadeko bazkidea delako, baina ez da taldean aterako, Zokoa elkarteko zuzendaria baita bera. "Sonbreroa pixka bat aldatu dugu, baina gainerakoan lkasberri Ikastolako umeen danborradako trajeen gisakoak egin ditugu", esan du hark.

Danborradako taldea sortzeko ideia azken bizpahiru urtetan bazkide egin diren bi gazte kuadrillarena izan zen. Hala dio Gorka Zabaleta (Azpeitia, 1984) kuadrilla horietako bateko kideak: "Azken urteetan soziedadean afaldu izan dugu San Sebastian bezperan, eta gero danborrada ikusten inbidia pasatzen genuen. Bazkideei-eta galdetzen hasi ginen, eta baiezko garbirik ez genuen jasotzen, baina batzarrean aipatu, eta...". Jendea "animatzen" hasi zela dio Josu Gurrutxaga (Azpeitia, 1966) bazkideak. "Zerrenda irekia

jarri genuen, eta jendetzak eman zuen talde-rako izena; 100 bat lagunek. Poza hartu genuen kopurua ikustean, baina erabaki genuen bazkideek soilik egin ahal izango zutela jantzia".

Danborradaren eguna iristeko "izugarritzko" gogoarekin dira taldeko kideak, nahiz eta batzuek baduten danborradan esperientzia. Gurrutxagak, esaterako, 25 bat urte daramatza Barratsu taldearekin ateratzen, eta aurretik ere hainbat urtez irten zuen Mendizaleekin. Arantxa Landa (Azpeitia, 1969) ere danborradan ateratakoa da urte "solte" batzuetan. Aldiz, Zabaletak eta Maixol Muguruzak (Azpeitia, 1970) estreinako aldia izango dute aurtengoan. "Beti esaten nuen probatzeko gogoia nuela, eta... begira", azaldu du Muguruzak. Zabaletak: "Nik urteetan Udal Musika Bandarekin irten nuen, baina danborra jotzen sekula ez".

Eta Jokin Iriondo izango da danbor taldearen zuzendaria, haren arabera, batzarrean beste inor ez zelako prest agertu. "Ez neukan zuzentzeko ideiarik, eta dagoeneko hasita nago entseatzen; beharko... Diskoa kendu ere egin gabe daukat kotxean, eta Unai Frantsesenarekin ere entseatu dut; eskerrak hari!". Zuzendari lanetan esperientzia duen Kinttelak "lasai" hartzeko aholkua eman dio Iriondori: "Lehen aldian normala da urduri

egotea, baina azpeitiarra denak, gutxi edo gehiago, badaki danborra jotzen...". Gurrutxagak, barrez: "Ba nik 25 urte daramatzat danborradan jotzen, eta oraindik ere zalantzan ibiltzen naiz".

Afaria soziedadean bertan egingo dute, eta batzordeko kideak arduratuko dira otordua prestatzeaz. "Lehen urtean hala egitea erabaki dugu, nahiz eta zalantzak izan ditugun katerinaren kontuarekin. Aurtengoan horrela egingo dugu, eta aurtengoaren arabera, ikusiko dugu datorren urteetan zer egin", azaldu du Zabaletak.

Danborrak joko dituzte Inpernukoek, beste bi taldeek ez bezala. "Zortea" izan dutela diote taldeko kideek, denek narrua egokitzea nahi zutelako. "Bagenekien talde gehiago aterako zirela, baina ezer garbirik ez. Izena eman genuen hurrenkeran erabaki da narrua ala txapa joko duen talde bakoitzak, eta guri narrua tokatu zaigu", azaldu du Kinttelak.

Ilunpeko taldea

Ilunpe soziedadeko bazkideak dira Iñaki Korta (Azpeitia, 1978), Aitor Zubizarreta (Azpeitia, 1978), Itziar Olazabal (Azpeitia, 1982) eta Maitane Labaka (Azpeitia, 1980). Haiek diotenez, urteetan aritu dira danborradako taldea sortzearen ideari bueltak ematen, eta aurtun bai, aurtun aterako dira helduen dan-

borradan. “Beti alde batera lagatzen genuen kontua, baina aurten serio hartu dugu. Erraz iristen ginen gutxieneko kopuruetara, eta aurtera egin dugu”.

Otsail aldean hasi ziren taldea osatzeko pausoak ematen, Zubizarretak dioenez, iazko danborrada pasatu eta segituan. “Hala hasi behar genuen, beroaldian, bestela beste urtebete pasatuko zitzaigun...”, esan du Olazabalek. 50 danbor-jotzaileko taldea izango da Ilunpekoena: “Taldea parekidea osatu dugu: 25 emakume eta 25 gizon. Kasualitatea da, baina pozgarria ere bai”.

Jantzia ere azkar erabaki zuten Ilunpeko kideek; izan ere, taldea sortzeko izapideekin batera aurkeztu behar zituzten jantziaren xehetasunak udaletxean. “Euskal Herriarekin zerikusia zuen zerbait izatea nahi genuen, eta hortik hasita otu zitzaigun maskaradaren gaia hartzea. Izan ere, Zuberoan urteko lehen hilabeteetako asteburuetan egiten den festa da maskarada. Azpeitiko ere badu lotura Ipar Euskal Herriko Hazparne herriarekin, eta...”, azaldu du Zubizarretak.

Azpeitiko jostun batekin egin dituzte trajetak, eta taldeko kideak oso gustura dira emaitzarekin. “Bagenekien Tere Ezeizak esku oso ona duela, eta oso gustura gaude egin duen lanarekin”, adierazi du Labakak.

Zubizarreta izango da taldeko zuzendari nagusia, eta hark zuzendari txikia izango du lagun. Bozketa egin zuten zuzendari txikiaren figura taldean txertatu ala ez erabakitzeko, eta baiezkoa gailenduta, hainbat arau edo irizpide jarri dituzte aukeraketarako: “Batetik, bazkideren baten familia zuzena izan beharko du haurrak, eta bestetik, urtero zabalduko dugu izen-ematea”.

Ilunpe elkarteko lau lagunak urtarrilaren 19rako gogoz daude. Olazabalen arabera, danborra jotzen hastea baino ez zaie falta. Entseguak egiten ere hasiak dira dagoeneko. Zubizarretak dioenez, ikasteko borondaterik ez zaie falta. Kortak, berriz, zuzendariaren esku daudela adierazi du, barrez. Hain zuzen ere, lehen aldiz ariko da Zubizarreta zuzendari lanetan. “Urte dezentetan atera naiz danborra jotzen beste talde batekin, eta zerbait desberdina egite aldera, zuzendari lana probatzea nahi nuen. Gainera, taldeko inork ez zuen nahi zuenik esan, eta... boluntario aurkeztu nintzen”. Hala ere, argi utzi du taldeko kideek zuzendari izan nahi badute izango dutela horretarako aukera: “Atea zabalik dago ni nazkatzen banaiz edo besteren batek irten nahi badu, egunen batean zuzendariaren kromoak aldatzeko”.

Ilunpekoek dagoeneko gauzatu dute entse-

guren bat, eta beren kasa ere ari dira prestatzen, Zubizarreta kasu: “Autoan, mugikorrean... danborradako diskoa bueltaka darabilkit azken hilabeteetan etengabe”. Danbor-jotzaileetako ba-tzuk lehen aldiz aterako dira aurtengoan, eta gogoz daudela adierazi dute horiek. “Ikusiko dugu zer ateratzen den”, esan du Kortak.

Afaria soziedadetik kanpo egingo dute, elkartea txikia delako eta lekuz justu ibili behar zutelako han. “Katerin zerbitzuren bat kontratatzea pentsatu genuen hasieran, baina sukaldea ere txikia da. Baigera leko jatetxean afaltzeko aukera suertatu zaigu azkenean, eta han izango gara. Kale aldean nahi genuen egin otordua; izan ere, aurten goizago hasiko da danborrada, eta garaiz afaldu beharko da”.

Txapa joko dute Ilunpeko kideek, eta danborrak nahiago bazituzten ere, konforme dira tokatutakoarekin. “Zozketa egingo zela uste genuen, baina izena emandako hurrenkeran egin da banaketa. Zozketa eginda ere, bagenekien txapa tokatzeko aukerak handiagoak zirela. Izan ere, aurrez jakina zen hiru talde berrietatik bik txapa jo beharko zutela”, adierazi du Kortak. Dena den, Ilunpekoek diotenez, irtetea da helburua, eta “oso gustura” daude.*



Ilunpe elkarteko kideak.

Pausoz pauso

Zortzi urte egin ditu Aitor Unanuek Lagun Onak Mendi Bazkunako lehendakari karguan. Emakume batek hartu du lekukoa: Arantxa Larrañagak. 📝📷 Mireia Galarza

Mendizaletasuna.

Horixe da Aitor Unanue (Azpeitia, 1981) eta Arantxa Larrañaga (Azpeitia, 1979) elkartzen dituenak. Urteak pasatu ahala, mendirako duten afizioa indartuz joan zaiei biei ala biei, eta horren erakusle da Unanue Lagun Onak Mendi Bazkunako lehendakari karguan egon izana azken zortzi urteotan. Abenduko batzarraren igarota, Larrañagak hartu du Unanuek utzitako kargua. Larrañagak garai berriaren aurrean "gogotsu" dagoela aitortu du.

"Berez, lau urtekoa izaten da lehendakari kargua, baina hainbat arrazoi medio, beste horrenbeste urtez izan naiz lehendakari, eta zortzi urte eginda, lehendakaritza uzteko momentua iritsi zela iruditzen zitzaidan", adierazi du Unanuek kargua utzi berritan. Lehendakaritza uzteko erabakia hartuta, kide berria izendatzeko deialdia egin zuten Lagun Onakeko kideek. Dena den, kargua hartzeko deialdira inor ez zela aurkeztu ikusita, batzordeak proposatu zuen hautagaia. "Animatu egin nintzen azkenean; orain, lanari ekitea besterik ez da falta", gaineratu du Larrañaga lehendakari berriak.

Elkarteko lehendakari izaterako, biek zuten esperientzia mendian, aspaldi hasi baitziren tontorrek igotzen. "Guztiak bezala, lagun giroan gure kasa hasi ginen mendira joaten, baina Lagun Onakek askotariko ekintzak antolatzen zituela jabetuta, horietan parte hartzen hasi ginen", dio Unanuek. Larrañagaren



Larrañaga eta Unanue Lagun Onak Mendi Bazkunaren egoitzaren atarian.

kasuan ere hainbat urte egin behar da atzera haren eta mendiaren arteko lotura noiz hasi zen ikusteko: "Familiatik datorrit mendirako afizioa. Horregatik, orain dela 20 urte inguru hasi nintzen Lagun Onakek antolatutako ekintzetan parte hartzen. Inguruko egun pasak, eta bereziki, Aste Santuan hainbat mendikatetara antolatzen zituzten irteerak ditut gogoan. Orain, familia izan ondoren, elkarteak umeentzat antolatzen dituen ibilaldietan ibiltzen naiz gehien". Hala ere, helduentzako irteeretan ere parte hartzen duela gaineratu du Larrañagak.

Elkartea, indartsu

1946. urtean sortu zen Lagun Onak Mendi Bazkuna. Harrezkero gorabeherak izan badiu ere, azken hamar urteetan parte hartzean nabaritutako beherakadari buelta emateko gai izan direla aitortu dute Unanuek eta Larrañagak. "Eskualdeko mendi elkarteok beherakada nabaritzen genuen mendiko ekintzetako parte hartzean, eta zergatiak bilatzeko asmoz ikerketa bat burutu genuen; Joxe

Takolo bekara aurkeztu genuen ikerketaren proiektua, eta bekaren laguntzari esker gauzatu genuen", dio Unanuek. Emaitzak eskuetan, ibilaldien formatua aldatu eta Azpeitia-Hazparne egitasmoari ekin zioten; uste baino erantzun positiboagoa jaso zutela gaineratu dute elkarteko bi kideek.

Antolaketa lan zaila ez dela aitortu arren, zailena irteeren urteko egutegia osatzea dela aitortu dute mendizaleek. Horretarako, urtea bukatu aurretik elkartzen dira batzarkideak, eta bakoitzak dituen proposamenak jartzen ditu mahai gainean. Behin irteerak finkatuta, autobus enpresekin jarri behar izaten dute kontaktuan, eta beharrezkoa den kasuetan, baita aterpetxeekin ere. Lehendakari berriaren arabera, "urteko garaiaren arabera aterpetxeetako eskaera ere nabarmen igotzen da, eta hiruzpalau hilabete aurretik harremanetan jartzea beharrezkoa izaten da kasu horietan".

Hiru mailatan sailkatzen dituzte urtean zehar egiten dituzten irteerak, baita horietan parte hartzen dutenen profila ere. "Errazena umeen irteerak izaten dira, eta udako hilabeteetan irteera gehiago egiten badira ere, normalean hilean bat edo bi antolatzen ditugu", dio lehendakari ohiak. Gainera, parte hartzea nahiko altua dela gaineratu du Larrañagak, irteera horietan gutxi gorabehera 40 pertsonak parte hartzen baitute. Bestetik, helduentzako irteerak daude, hileroko antolatzen dituztenak; 80 pertsona inguru animatzen dira, batez beste, irteera horietara. Azkenik, goimendietara antolatzen dituzten irteerak daude. Larrañagaren arabera, azken horiek mendizaletasuna "serioago" hartzen dute nentzat dira. Unanueren hitzetan, goi mailako irteerak antolatzeari utzi behar izan zioten orain urte batzuk, baina eskaera handia zela eta, berriro hasi ziren antolatzen. "Ez dira asko, baina hamabost bat mendizalek parte hartzen dute irteera bakoitzean". Azken urteetan, era horretako bi irteera egiten dituzte urtean, bata Pirinioetara eta bestea Europako Mendietara, baina etorkizunean beste horrenbeste egin ahal izatea dute helburu. "Bide onetik goaz", baieztatu du lehendakari berriak.

Ildo horretan, Unanuek eta Larrañagak beharrezkotzat jotzen dute herrian mendi elkarre bat egotea, besteak beste, "bakarka auzartzen ez zaren mendietara igo zaitezkeelako antolatutako ibilaldien bitartez", dio Larrañagak. Unanueren ustez, gainera, elkarteak antolatzen dituen irteeretara autobusez joateak onurak dakartzkio mendizaleari. Izan ere,

lehendakari ohiaren ustetan, "kasu horietan autobusak leku batean utzi eta beste batean jasotzen zaitu, eta hori aukera paregabea da ibilbidean zehar leku bat baino gehiago eza gutzeko".

Badira, gainera, Lagun Onakek antolatzen dituen beste bi egitasmo berezi: maiatzeko eta abenduko Mendi Asteak. Joan den abenduko Mendi Astea hizpide, Unanue eta Larrañaga bat datoz azken horren inguruko balorazio ona egiterakoan. Normalean urteko bigarren Mendi Astea xumeagoa izaten den arren, 2019ko abendukoaren edukia maiatzekoarekin parekatu dute biek. Gainera, jasotako babesa ere azpimarratu dute. "Baillarako herrietatik etortzen dira Mendi Astera, eta beti jasotzen ditugu oso iruzkin positiboak; guk zer erakutsi zain egoten dira", diote mendizaleek.

Badirudi, gainera, bolada onak jarraipena izango duela. Izan ere, 2021. urtean 75. urteurrena ospatuko du Lagun Onak Mendi Bazkunak. Ez dute erabaki oraindik nola ospatuko duten data berezia, baina hainbat ekintza aurreikusten dute. Gainera, herritarrei eman nahi diete garrantzia, eta horregatik, azpeitiarrak animatu nahi dituzte ospakizunaren nondik norakoak erabakitzeko hurrengo urtean zehar antolatuko dituzten deialdi eta bilera irekietara. "Itxura eta forma polita eman nahi diogu urteurrenari, herritarren laguntzarekin", dio Larrañagak.

Mendia ere aldatzen

Mendia ulertzeko modua erabat aldatu dela gaineratu dute Lagun Onak Mendi Bazkuna kideek: "Lehen ezagutzen genuen mendizale klasikoaren profila erabat aldatu da", dio Unanuek. Mendiak aukera asko ematen dituela aitortu dute biek, eta gaur egun herrian modalitate guztietan dabilen jendea dagoe. "Batzuk egun pasa joaten dira inguruko mendietara, beste batzuk korrika, eta badaude dedikazio eta ardura handiagoa eskatzen duten modalitateetan parte hartzen duten herritarrek ere", esan du lehendakari berriak.

Unanue eta Larrañagaren ustez "gero eta kontzientzia gehiagorekin" joaten da jendea mendira. Hala ere, "gerta daiteke kontuan hartu gabeko arrazoi batzuegatik nahi ez den zerbait gertatzea". Horregatik, mendian adi ibili behar dela diote biek, eta mendia ezagutzeaz gain, nork bere burua ondo ezagutzea eta mugak jartzen jakitea garrantzitsua dela azpimarratu dute, mendian praktikan jartzen den modalitatea edozein dela ere, garrantzitsuena norbera baita.★



Gregorio (I)

Gizakiaren burua paraxut bat bezalakoa da: bakarrik funtzionatzen du zabaltzen bada" (Albert Einstein). Eta gizon honek, zalantzarik ez izan, gazte-gaztetatik izan du etengabe 'paraxuta' irekita. Baita gaur egun ere, 84 urte berriki bete dituen pertsonaia poliedrikoak. Padre Tiago Portugalen eta Angolan, Padre Santiago Palentzian, Pere Jacques Frantzian, Father James Ingalaterran eta... hemen? Gregorio, Oiaungo Gregorio. Bai, fraide baten gaineko kontaketa laburra da hau, bere bizitza oparoaren zertzelada apur batzuk. Izan ere, liburu mar-dula idatzi beharko genuke historia osoa kon-tatuz gero.

–Nolatan fraide?

–Hamabi urte nituela, familiak Allozko (Nafarroa) moja komentura bidali ninduen erdara ikastera. Eta mojen aholkuz, 14 urte betetze-ar Venta de Bañosera (Palentzia, Espainia), zisterar monasteriora.

Barru-barruan gorderik dauka bidaia eta sarrera nolakoak izan ziren. "Ikatzek mugitzen zen tren geldoan, guztiz txorabiatuta iritsi nintzen. Paisaia... jo, arrea, idorra. Komentura sartu eta klaustroan... 'baina, ze usain da hau?' Klaro! Platerakoa ikusi nuenean jabetu nintzen: bi erremolatxa xerra, bi patata ale, azeitunak, letxuga, oreganoa... Auskalo nola-ko bisajea nuen 'Que, vasquito, esta triste?'. Handik ordu erdira botaka egin nuen. Gero, Afrikan ohikoa zen harrak, txindurriak eta abar jatea; baina baserriko janarekin ohituta, eta hura... buf!".

Muturreko deliberamendua

Meza berria 24 urterekin eman eta arduradunek Angolara bidali zuten, Salazar diktadorearen garaian. Aurrez portugesa ikasi zuen Lisboan, eta gurina eta gazta egiten Kantabriari (Espainia). "Itsasontzian hamasei egun igaro ondoren, sotoan eta gainaldean behiak genituela, ailegatu ginen. Han denetik egiten nuen: albaitari, argiketari, organista...". Eta



||||||| Luis gurrutxaga |||||

||| Gizon honek, zalantzarik ez izan, gazte-gaztetatik izan du etengabe 'paraxuta' irekita



Afrikan zegoela, baimena eskatu eta fraide izateari uztea erabaki zuen.

–Eta, garai haietan, 1969an diozu, zerk bultzatuta hartu zenuen hain muturreko deli-beramendua?

–Gogoeta sakonen ondorioz. Ez zen bat-batekoa izan. Ez. *Mundo Negro* izeneko aldizkarian irakurri nuen: zenbat eta kontzientzia, askatasun, nortasun eta ezagutza gehiago eduki, orduan eta jainkotiarra zara, kristoagoa. Kontzientzia neurea eta ez bestena; nortasuna ez besteak nagusitzeko, ez; askatasuna ez edozer gauza egiteko, baizik eta nik neuk erabakiak hartzeko, libreki; eta ezagutza, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta libreagoa sentitzeko. Eta bat sartzen bada monasterioan 13 urterekin, ni sartu nintzen bezala, ez du izan aukerarik, adibidez, emakume bat ezagutzeko; askatasunik ez; dirurik ez negozio bat burutzeko; nortasuna garatzeko aukera gutxi; ikasketak labur... Beraz, nik osatu egin behar dut nire nortasuna, nire gizatasuna, nire izaera, esaten nion nire buruari. Erabaki zuzena zen eta derrigortuta sentitzen nintzen urratsa egitera.

–Garai haietan horrelako erabakiak astinduko zituen bada ondokoak eta etxeokoa?

–Bai, bai. Oso aurkako jarrera topatu nuen, sekulakoa. Sekularizatzeko Erromari baimena eskatu nion. Frantziako eta Ingalaterrako monasterioetan pasatu nituen hiru urte, onespen zain. Hainbeste denbora pasatu eta lizentziarik ematen ez zidatenez, guztiz gogaituta, fraide izatetik irten nintzen. Eskumikatua eta iheslari deklaratu, laiko bezala egin nituen lehenengo bost urteak Bilbon igaro nituen, gozogile ogibidean.

Gregorioren erabakiak ezustean harrapatu bazituen gertukoak eta ezagunak, handik urte batzuetara hartu zuen deliberoak gehiago harritu eta txunditu gintuen. Baina hurrengoan mintzatuko gara horretaz.*

etorkizunerantz hezkuntza eraldatzen



**2020/21 IKASTURTEA
MATRIKULAZIOA**

ATE IREKIAK

URTARRILAREN 23an, 17:30-19:00

**azpeitiko
ikastola**


ikasberri koop.e.



Loiolako Inazio hiribidea 26 • 20730 Azpeitia • Tel.: 943 15 12 46 • ikasberri@azpeitikoikastola.eus

www.azpeitikoikastola.eus

Bertsotan trebatzeko

Helduentzako bertso tailerra emango du Erniarraitz bertsozale elkarteak, urtarrilean hasita. Bertsozalea izatea nahikoa da ikastaroan parte hartzeko, eta izen-ematea zabalik dago.  Nerea Uranga

Hil honetatik aurrera, helduentzako bertso tailerra eskainiko du Erniarraitz bertsozale elkarteak. Hasiberrientzako ikastaroa izango da, eta elkarteak kideek adierazi dutenez, ikastaroan parte hartzeko nahikoa izango da bertsozalea izatea.

Aitor Salegi bertsolari zestoarra ariko da tailerrean irakasle. "16 urtetik gorako edozein bertsozalek parte har dezake ikastaroan. Batzuk trebatuagoak izango dira eta beste batzuk, berriz, hutsetik hasiko dira. Baina denentzako tokia egongo da tailerrean. Partaideen arabera antolatuko dugu saioen martxa". Orain dela bi urte ere egin zuten helduentzako bertso tailerra Azpeitian. Zortzi bat laguneko taldea osatu zuten orduan: "Denetarik elkartu zen orain bi urteko ikastaroan, parte hartzaileetako batzuek doinu batzuk eta ezagutzen zituzten, baina hutsetik hasi zirenak ere izan ziren".

Bertso tailerrean landuko dutea ere azaldu du Salegik. "Haurren bertso eskoletan egiten ditugun antzeko saioak izango dira: aurrena, bertsoetako doinu batzuk ikasiko ditugu. Gero, bertso zahar batzuk irakurriko ditugu, eta ondoren, ariketa desberdinak egingo ditugu. Bukatzeko, batbatekoa lantzen jardungo dugu.

||| DATUAK |||||

||| **Zer.** Helduentzako bertso tailerra. ||| **Eguna.** Asteazkenetan. ||| **Ordua.** 20:00etatik 21:00etara. ||| **Tokia.** Zehaztu gabe dute oraindik. ||| **Antolatzailea.** Erniarraitz bertsozale elkarteak.

Taldeak duen mailaren arabera egingo dugu guztia", zehaztu du.

Asteazkenetan izango dira saioak, 20:00etatik 21:00etara bitartean, eta hileroko kuota 20 eurokoa izango da. Ikastaroan izena eman nahi duenak *erniarraitz@gmail.com* helbidera idatzi beharko du. Elkarteak ez du zehaztu oraindik non emango duten ikastaroa, izen-ematearen arabera erabakiko dute lekua. ✘

||| HELDUEN BERTSO TAILERRA |||||

5 bat hilabete. Hil honen erdialdera hasiko dituzte helduen bertso tailerreko eskolak Erniarraitzekoek. Ekainera bitartean izango dira saioak, asteazkenero, 20:00etatik 21:00etara. ✘



Edozein bertsozalek parte har dezake ikastaroan.

||| BESTERIK |||||

1 Entseguak danborradarako Urtarrilaren 19eko eta 20ko danborradetarako entseguak egingo dituzte.

||| **Eguna.** Urtarrilak 14, 15 eta 16 (asteartea, asteazkena eta osteguna). ||| **Ordua.** Helduak, 21:00etan; haurrak, 15:00etan. ||| **Tokia.** Izarraitz pilotalekua. ||| **Antolatzailea.** Udala.

2 Punk doinuak Sanagustinen Distorsion Barakaldoko talde beteranoak eta Baserriko Ollaxkue Labien Azpeitiko taldeak joko dute.

||| **Eguna.** Urtarrilak 18 (larunbata). ||| **Ordua.** 22:30 ||| **Tokia.** Sanagustin kulturgunea. ||| **Antolatzailea.** Kulturaz kooperatiba.

3 Arrazakeria eta feminismoa Hitzaldia emango dute Irantz Varelak eta Maya Amraek. Gaztelaniaz izango da.

||| **Eguna.** Urtarrilak 29 (asteazkena). ||| **Ordua.** 18:30 ||| **Tokia.** Basazabalena. ||| **Antolatzailea.** Udaleko Parekidetasun Saila eta Emakumeen Txokoa. ✘

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

IKA Instalakuntza Elektrikoak
argi lanak s.l.
Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikaarg@lanak@gmail.com www.lanak.com
20730 AZPEITIA

AIZPURU AUTOAK
Tel: 543 81 23 89 Fax: 543 81 22 88
aizpuru@aizpuru.net www.aizpuru.net
Arretxa 17, 20730 AZPEITIA

BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukaldeak
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?

Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 · AZKOITIA · ☎ 943-85 21 10 · www.biyona.net



IRAURGI
ikastetxea

Gu Geu izateko bidea

zatz!


ATE IREKIAK

urtarrilak 25 - 11:00etan

T. 943810210

www.iraurgi.eus

||| **HITZ GEZIDUNAK** ||||||||||||

	Aranoko herritarra	▼	Da, niri	▼	Zintzoa	▼	Arabako udalerria	▼	Garestitu, karioitu
	Gipuzkoako ibala		Emakume izena		Toka, naiz	▶	Aldamen		
					Moko kolpea				
	Basapiztia	▶							
	* Deitura								
Lausengua, losintxa	▼	Pirinioeta-ko gailurra	▶	▼			Presio unitate	▶	
Gizon izena		Letoniako hiriburua					Ikaraz		
					Ahologar	▶			Urania
					500				Landare mota
Gai likatsua	▶				Bizkaieraz, duk	▶		Kanpo, landa	▶
Izena					Bizkaiko udalerria			Uhartea	
					Azaleko gogorgune	▶			
					... egin, obeditu				
Krustazeo mota	▶								Urrearen ikur kimikoa
Sute									
		Herri hizkeran, eta	▶		Mozkorra	▶			
		Bokal mehea			Bokala				
Gipuzkoa-ko udalerria	▶			Fruitu mota	▶			Bokala	▶

 **Egilea: Luma**

* Azpeitiko alkatea

||| **SUDOKUA** ||||||||||||

5								7
				1	6	2	4	
							1	
		2		8				
7	9			3				
							9	2
						6		9
		4	9		3	7	2	
		1	2		7	5		



||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK |||||

HITZ GURUTZATUAK

Ezker-eskuin

1. Atabala jotzen duen pertsona. 2. Gure herriko futbol taldearen izena. 3. Zerbaite-tan trebatzeko jarduna. Kanpo, landa. 4. Hedabide mota. '... ez da urre' dio euskal esaera zahar batek. 5. ... gabe, galditu gabe, atertu gabe. Inbutuak. 6. Xume. Harrera. 7. Atzizki hau gabe, jainkosarik ez. Hatsa. 8. Laga. Titanoaren ikur kimikoa. Antzinako Egiptoko jainkoa. 9. Naroa esango luke bizkaitar batek. Gaixo. 10. Noren deklinabide kasuaren atzizkia. Beldurtia, izutia.

Goitik behera

1. Barre egiteko joera duenaren egoera edo jarrera. 2. Itsumustuan, arrapaladan. 3. Zerbait frogatzeko edo zerbaiten berri emateko balio duen izkribua. Zirkonioaren ikur kimikoa. 4. Amai. Garai bateko laborarien lanabesak. 5. Pirinioetako gailurra. Kontsonantea. Masurioaren ikur kimikoa. 6. Tenienteak, geure iparraldeko haurrideek dioten moduan. 7. Emakume izena. Erreka handi. Bokala. 8. Radioaren ikur kimikoa. Diosal, agur. Interjekzioa. 9. Izugarri, beldurgarri. 10. Lehenengo. Leku. Gipuzkoako udalerria, Urola Kostan.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2					-					
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

||| HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK
 BIDALTZEKO EPEA. Urtarrilak 27 (astelehena) ||| **NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA.** Soreasuko Sormen Gunea, 1. solairua (Azpeitia) edo *lehiaketakuztarria@gmail.com* e-postara ||| **IRABAZLEARI SARIA.** Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta ||| **PARTE HARTZEKO BALDINTZA.** Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali, edo atera argazkia eta posta elektronikoz bidali.

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

U	•	V	N	V	N	V	•	V	I	V	•
V	E	L	V	D	E	•	V	J	•	U	S
•	O	R	R	V	M	V	R	R	V	R	•
U	L	I	V	K	•	E	R	O	G	V	N
J	V	•	K	O	D	•	V	K	I	L	•
U	•	O	I	K	•	S	O	L	R	K	A
R	V	•	B	•	O	T	E	N	V	•	B
V	I	L	V	M	I	N	V	•			
•	Z	•	O	•	Z	•	V	•			

SUDOKUA

8	4	5	8	4	9	3	1	2	6	7	5
1	1	2	1	3	7	2	1	6	8	4	9
9	3	7	1	4	8	6	3	9	2	5	7
2	3	4	5	6	7	1	8	9	2	3	4
6	7	9	8	4	3	2	1	5	6	7	9
3	1	6	2	5	8	9	4	7	3	1	6
8	4	2	6	7	9	5	3	1	8	7	9
5	1	3	8	2	4	9	6	7	5	1	3

||| UZTARRIAREN ABENDUKO LEHIAKETA |||||

IRABAZLEA



Ixabel Jauregi
 Uztarrria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 222. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



**URDAIAZPIKO,
 HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA



Eñaut: 656 79 14 19
 Oier: 618 24 01 73
 kutxillo@gmail.com
 Damazo Azkue 6
 AZPEITIA

BIDEOA



▲ JULIAN BARRENETXEA ABESBATZA, HAZTEKO PREST.

33 urte dira Julian Barrenetxea abesbatza sortu zutela. Koru misto bezala jaio zen, baina duela bi urtetik ahots zuriena da; emakumeena. 2017. urtean emakumeen abesbatza izatera pasatu zen Julian Barrenetxea, eta hainbat urtez taldea gidatu zuen Jaime Amenabarrek zuzendari lana utzi zuen. Haren ordez Javier Alberdi donostiarrek hartu zuen ahots zurien abesbatzaren zuzendari kargua, eta horretan dabil orduz geroztik. Taldea osatu nahi dute, eta horregatik herriko emakumeei abesbatzara batzeko deia egin diete. Izan ere, kantatzera animatzen den edonorentzat ateak zabalik dituzte Julian Barrenetxea abesbatzan. Astean behin, asteazkenetan, 21:00etan, entseatzen dute Soreasun. Taldearen nondik norakoekin eta abesbatzako kideen adierazpenekin osatutako bideoa ikus daiteke Uztarria.eus atarian. Besteak beste, koruak daukan hazteko eta berritzeko premia aritu dira solasean abeslariak. 'Mikrouhinak' bideo sortarako egin dute ikus-entzunezkoa Kulturaz kooperatibak, Uztarriak eta 'Urola Kostako Hitza'-k.

EFEMERIDEAK

2017

Emakume izendun aurreneko plaza. Emakume izendun aurreneko plaza izendatzeko ekitaldia ospatu zuten, Balentina Agirre Elorzaren omenez.

2002

Zelaitxo eraitsi. Zelaitxo zinema aretoa bota zuten, etxebizitzak egiteko.

1916

Udaltzaingoaren bulegoa. Udaletxe zaharreko beheko lokalean Udaltzaingoa jartzeko egin behar ziren lanen aurrekontua onartu zuten.

1766

Baratzeak alokairura. Herriak 66 baratze zituela jakinarazi zuten. Horiek guztiak alokatu zituzten, herritarrek zerbait ordainduta.

Iturria: Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.
Egilea: Imanol Elías Odriozola.
Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

Urte eta asmo berri

GORKA BIAIN topografoa

Banator, urte berriko asmo berriein berriz ere. *Forbes* aldizkariaren arabera, erronka berriak proposatzen dituztenen %8k bakarrik lortzen dute beren helburua. Zehazte falta omen da oztopo nagusietako bat; asmo gehiegi, eta gainera, ez oso errealistik izatea. Urteroko asmoetako bat izan ohi da osasuntsuago jatea. Helburu zehatza al da? Eta zer da osasungarriago jatea? Perspektiba aldatzen badugu, proposatu dugun erronka betetzeko aukerak areagotuko ditugu, ez al zaizu iruditzen?

Osasuntsuago jatea bada zure helburuetako bat, zehazten laguntzera ausartuko natzaizu:

1. Barazki gehiago jan eta bertakoei eta garaikoei protagonismoa eman. Konfiantzazkoak dira, nutritiboki aberatsagoak, eta bertako ekonomia bultzatzen da haiek janda. 2. Egunero fruta pieza bat gehiago jatera animatu. Gosaritan, postrean edo jatordu tartean. Eta gogoratu beti eskura edukitzea. 3. Lekaleen kontsumoa gehitu. Astean gutxienez bi errazio jatea komeni zaizu, eta gehiagotan jaten badituzu, hobe. 4. Asteko menua planifikatu, denbora eta dirua aurreztuko dituzu. 5. Kozinatu, errezeta berriak prestatzera animatu.

Eta etxean ez baduzu zure aitona-amonek ezagutzen ez zuten produkturik... bide onetik zabilza.

Urte berri eta osasuntsu on!*



aitziber aizpuru



1. Topografo izateko?

Ingeniaritza ikasketak eta aire librean lanean aritzea gustatzea.

2. Ezinbesteko lan tresna?

GPS topografikoa, botak, markatzeko espraia eta hesolak.

3. Lurzoru egokiena?

Belardi laua eta lehorra.

4. Lanerako: kalea edo landa eremua?

Landa eremua, estres gutxiago sumatzen da eta airea osasuntsuagoa da.

5. Egin duzun lan arraroena?

Hondartzan altxamendu topografikoa egin behar izan nuen oin hutsik eta bainujantzitan.

6. GPSak huts egiten duenean...

Ordenagailuan planoen muntaia egiten dut.*

Anartz Izagirre

Ekain
ALBAITARI KLINIKA
Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 16 16 40
Larriak: 943 16 16 40

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRIKAS
Jose de Arretxe, 17
Tel. 943-810654
AZPEITIA
Iñaki Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA
Tel.: 943 81 47 12

Alar
merceria
Loiolako Iazulo Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

LAU
NEUMATIKOAK
PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA
943 053056 Loiola kalea 30, 20730 Azpeitia

uba
ENFERMERIA
Anatomia
Fisioterapia
Gaiturrak
Sententzia
Gaiturrak
Fitzen administrazioa
Gestioa inmobiliarioa
Tel. 943 157 420 Fax: 943 157 274
Ezpeitza kalea, 41. 1. solairua - 20730 Azpeitia

KIRURI
K
JATETXE
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Telefono: 943 81 56 08
Faxa: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA
DISEÑU
ESKOLA
ELKARTEA
● **Marraskia eta eskulanak**
(haurrak) 17:30 - 19:00
● **Pintura** 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
● **Talla** 19:30 - 20:00
Jose Arretxe kalea, 3
943 81 28 08
aribadburu@gmail.com
Matrikula arte osoan zabalik

IRENE ALTUNA
ORAZENDA
Loiola Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunacenda.com

Errebala zenaz

Mende erdi pasatxoan gauzak zenbat alda daitezkeen. Gaztetan ezagutu zuten kalea ekarri dute gogora Rosario Ibaietak eta Fernando Bereziartuak. 📌 Mailo Oiarzabal

Erdi Aroan, herrigune nagusien harresietatik edota ateetatik kanpo eraikitako auzoei esaten zitzaien *errebala*. Azpeitiko egungo kale izendegian badira bi errebala: Txaribarkoa bata, parrokiaren ondoran; eta Bustinzurikoa, bestea. Baina azken hori da, azpeitiarrentzat, Errebala izenaren jabe. Errebala jatorritik Azpeitiko bizitzaren erdiguneetako izatera igaro zen aspaldi Errebala, egunez zein gauez, azken urteetan zentralitate hori apalduz joan den arren.

Errebalean jaiotakoak eta errebaldar peto-petoak dira Rosario Ibaieta (Azpeitia, 1945) eta Fernando Bereziartua *Pikua* (Azpeitia, 1950). Joan den mendearen erdialdetik gaur egunera arte beren kale maiteak bizitako eraldaketaren lekuko zuzenak ere badira Ibaieta eta Bereziartua. Urte luzez bizitoki ez ezik, lantoki eta eguneroko bizimoduaren erdigunea ere izan da Errebala biezatzat; handik urrutira gabe bizi dira gaur egun ere bata zein bestea, eta ez dute saltzeko sorlekua. Atzera begira jarri dira biak Uztarriarentzat, umetan ezagutu zuten Errebalaaren memoria berreskuratuz, gaur egungoarekin zer antz gutxi duen nabarmenduz.

Behetik gora

Errebala non hasten eta non bukatzen den zehazteari ekin dio Bereziartuak. “Errebala hasten da Pikuaneko etxean, hura da 2. zenbakia, eta bukatzen da Urbanoneko etxean;

hori da orain hormatuta dagoena. Hortik aurrerakoa Arana da”, esan du. Ibaietak kalea non hasten den zalantza agertu du, ordea, Pikuanekoaren ilaran zegoen Tuertoneko etxea Errebaleko lehendabizikoa ez ote zen aitatu duenean. “Tuertonekoa ez al zen lehendabizikoa?”. “Ez! Tuertonekoa zen Olazko plaza-txoa”. “Baina Olazko plazatorik ez zegoen!”... Baina baietz dio Bereziartuak, bazela orduan ere izen hori zuen gunea: Tuerto, Kojua eta Artetxenekoaren atarialdeari esaten zitzaiola horrela.

Pikuaren ilara utzi, kale estua zeharkatu eta alde hartako eraikin, etxebizitza, denda, ostatu eta lantokien errebasoa egiten hasi dira. Horitutako zuri-beltzeko argazkiek gordetzen dituzten orduko oroitzapenak kolorez jantzen dituzte Bereziartuaren eta Ibaietaren hitzek: “Pikuanekoaren aurrean, nahiz eta pixka bat gorago egon, 1 zenbakia zeukana, Carolinaneko janari denda. Goizeko zortzietan ireki eta gaueko hamaiketan ixten zuen”, hasi da Bereziartua, eta “jai eta aste” horrela izaten zela berretsi du Ibaietak. Pikuanekoak denda hartan “bizi” zirela dio Bereziartuak. “Orduan ez zegoen hozkailurik, eta momentukoa besterik ez genuen edukitzen. Bi xerra behar bazenituen, Zabalane-kora. Eta azukrea, olio... behar zirenean, Carolinarenera”. Lehengaiak ontziratu gabe eta soltean saltzen zituztela ekarri du gogora Ibaietak: “Orduan bai birziklatzen zen!”.

Behetik gora kaleko eskuin aldeko etxe ilarekin jarraitu du Fernando Pikuak: “Carolinanekoaren azpian, Aitzaki. Etxepeko portala, eta ondoren Zabalane-kora taberna. Ondoren, amuxategitarren etxea, eta hor behean Lasa denda, mertzeria. Gero, beste etxabe bat eta Javier Aitzakikoaren tailerra; bobinaketan aritzen ziren. Ondoren, Arotxaneko etxea; ukuilua zeukaten etxabea, eta bi behi. Hurrengo etxean zeuden Txeru eta Inpernue soziedadeak”, iritsi da erdi parera. “Txeru goian eta Inpernue behean”, zehaztu du Ibaietak, bi soziedadeen izenek gordetzen zuten hitz jokoa gogoan: ‘zerua’ (Txeru) goian zelako hasi ziren deitzen Inpernue, nonbait, Peña Taurina El Andaluz izenarekin sortu zen beheko elkarteari.

“Hurrengo, 13.a, Ezkerretegiren etxea, orain Elurra taberna dagoena”, heldu dio berriro ilarari Bereziartuak. “Orduan igeltsutegia zen hor, eta kalearen bestaldean, orain arraindegia dagoen horretan, zeukan biltegia. Gero estrata, eta segidan hauen denda [Nerea eskulanak, Ibaieta ahizpen saltokia]. Baina hauen denda etxebizitza bat zen. Belmonte-eta bizi ziren hor; etxabea, kalearen mailan, sukaldea zegoen. Eta etxepe berean, Donoxti ere bai, Felix Bereziartua Alkain. Hurrengo etxean, Nizeta, eta Ibañez eta. Akordatzen al zara?”, galdetu dio Ibaietari, eta honek baietz: “Bi solairutakoa zen hasieran, eta beste bi altxatu zituzten gerora”.



1930 aldeko Errebalaren hasiera erakusten du Nikolas Oteizak ateratako argazki zahar honek. |||Nikolas Oteiza

Hizketan ari diren etxera iritsi da kontakizuna, gaur egun Nerea dendakoek biltegia dutenera, hain zuzen. “Imanol Azkuerena eta. Eta gero, larrumetarrak”, dio Ibaietak. “Eta Piotxo, Pio Astigarraga. Organista, pertsonaia handia”, aipatu du Bereziartuak; eta “bai, bai, mitikoa”, gaineratu Ibaietak. Errebalean “pertsonaia bereziak” ia atez ate zeudela aipatu dute biek behin baino gehiagotan, eta izen eta ezizen erreskada luzea zerrendatu ere bai, hainbat pasadizo gogora ekarriz; Piotxoren etxepe berean bizi zen guardaren etxeraino sartu zen kamioiarena, esaterako. Piotxoren eta guardaren etxearen ondoko Urbanoren etxearekin bukatzen zen Errebalean behetik gorako ezkerreko etxe ilara.

Goitik behera

Urbanonetik kalea gurutzatu, eta Casa Bombero izenarekin ezagutzen zuten etxearekin hasi dute bestaldeko etxe ilararen zerranda. Suhiltzaileen etxea izandako horretan osatu dute familia zerranda luzeena. “Nik ez dakit etxe hori gomazkoa al zen ala zer, horko sartu-irtena!”, dio Bereziartuak, kalean behe-ara abiatu aurretik. “Casa Bomberoren ondoran Xoxoterako bidea, gero bodegoia. Ageda Izagirre, arrain saltzailea. Ondoren, ia beti erdi hutsik egon izan den lokal bat, zuen [ibaietatarren] etxepean; Bitortxoren biltegia zen garai batean. Gero, Oker taberna egon

Gaueko begiekin

|||Ruben Fernandez (Azpeitia, 1989) ez da Errebalean sortua, baina badira urte batzuk bertan lan egiten hasi zela. Horren aurretik, gaez festara irteten hasi zenean ezagutu zuen Errebaleko giroa Fernandezek; urte haietan “parrandaren erdigunea Errebala” zela kontatu du. “Elurra, Oker, Arrona eta Pikua zeuden irekita”.

Azken urteetan aldatu egin da joera. Larunbat gauetako parrandak gainbehera joan dira Azpeitian, ez Errebalean bakarrik, baina baita Errebalean ere. 2012ko abenduan itxi zuten Arrona taberna, eraikinaren teilatua behera etorri ondoren. Fernandez 16 urterekin hasi zen Errebalean lanean, zerbitzari, Elurra tabernan, eta garaitu hartan itxi zituen ateak Okerrek. 2016ko otsailean, berriz, Pikua taberna hartu zuen Fernandezek. Gaur egun, Elurra eta Pikua dira Errebalean martxan dauden bi tabernak, baina “biak asteburuetan bakarrik irekitzen” dituzte.

Eta Pikuak ere gertu du iraungitze data. Errebaleko hasierako eraikina eraitsi egingo dute. Data zehatza ez dakitela dio Fernandezek, baina datozen karnabalen ondoren taberna ixteko “asmoa” dutela aurreratu du.

zena. Ondoren, lehen aipatu dugun Ezkerretegiren biltegia, eta ondoren Rikiren etxea. Ondoko etxeak ere bazuen biltegia, baina hutsik egoten zen”.

“Hurrengo etxea Trastornoren etxea zen; janari denda, hura ere. Ondokoa, harategiko etxea; oraingoa dagoen toki berean, baina beste etxe bat zen, bota eta berria egin zuten”, jarraitu du Bereziartuak, eta “Atzekoaldetarako pasoa ere hor” zegoela erantsi du Ibaietak. Errebalek, izan ere, bazuen eranskin moduko atzeko aldeko beste zati bat, gaur egun Olazko Andre Mariaren plazatxoko etxebizitzetako batzuek betetzen dutena. Kale aldeko etxeen lehenengo solairuaren altueran kaleka estua, ibaietatarren aitaren tailerra eta kalearen gain aldean zegoen “Istiyoren etxea”, Fammic enpresak lehen urratsak egin zituen kale baserria, ekarri dituzte gogora, besteak beste, Atzekoaldetaz hitz egitera koan. Eta itzuli dira kale-kalera, eta etxe zerrendaren azken txanpari ekin dio Bereziartuak: “Harategiaren ondoren, Izarraitz-Txoko soziedade dagoen etxea; hori ere erre egin zen. Gero zegoen Arrona taberna, eta gero Pikua. Eta Pikuaren gaineko solairuan beste soziedade bat, oraingo Zezenzaleak danborrada taldearen iturburua izan zena. Horixe, Errebala”. Oroimenez eta lehenaldia erabiliz, “berezia zen, Errebala” dio Ibaietak. Izango dena, berriz, ikusteko dago.*

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Tebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (URTARRILA)

1-9-15-22-25-26-31
Jacome (Azpeitia).
943080258

14-23-29
Beristain (Azpeitia).
943 811949

2-4-5-6-10-16-18-19-24-30
Arrieta (Azpeitia).
943811274

8-11-12-17-21-28
Alberdi (Azpeitia).
943815974

3-7-13-20-27
Aranburu (Azpeitia).
943811350

GAUEZ, URTE OSOAN
Aranburu (Azpeitia).
943 811350

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Urtarrilaren 29an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuluskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



ELKARGUNEA, ZABALIK.

Berrerabili daiteken materiala nahiz arropa jasotzen eta saltzen du Elkar-ekinek Soreasuko Elkargunean. Ostiral arratsaldeetan (16:00-20:00) eta larunbat goizetan (10:00-13:30) izaten da irekita.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegia osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

MIKEL ALBERDI

Playa del Carmen, Quintana Roo, Mexiko

“Aspalditik bila nenbilen Lasaitasuna aurkitu dut hemen”

Hiru urte daramatza Mikel Alberdik Mexikon. Bisita gidatuak antolatzen ditu, eta oso gustura bizi da han. 📌 **Maialen Etxaniz**

Zer dela eta iritsi zinen Mexikora?

Duela zazpi bat urte izan nintzen Mexikon aurreneko aldiz, oporretan. Asko gustatu zitzaidan. Hori dela eta, beste behin ere joan nintzen, eta orduan pentsatu nuen urtebetez han bizitzen gelditzea. Dagoeneko hiru urte pasatxo daramatza Mexikon, eta oso gustura nago hemen.

Nolako da zure egunerokoa han?

Txangoak antolatzen ditut Riviera Mayan: irletara, urmaletara, biosferetara, ur parkeetara, ikuskizun berezietara... Zazpi orduz egiten dut lan bulegoan, baina kaleko lana ere ezinbestekoa da. Jendearekin hitz egitea, zer nahi duten ezagutzea eta nik zer eskaintzen dudan azaltzea da kalean egiten dudana.

Eta lanetik kanpo, zer egiten duzu?

Nire bizitza oso lasaia eta pozez betea da. Eguraldi ona egiten du ia egunero. Hondartza bizi naizen lekutik oso gertu dago, baita gimnasioa eta etorbide nagusia ere, paseotxo bat emateko, erosketak egitera joateko... Edozer gauza nahi izanez gero, dena bertatik bertara daukat.

Mexikotik zer atsegin duzu gehien?

Jendearen bizitzeko modua, gauza gutxirekin ere beti dute irria aurpegian. Horrez gain, lekua bera eta bertako lasaitasuna ditut atsegin. Paradisu hutsa da.

Eta zer da gutxien gustatzen zaizuna?

Drogak eta alkoholismoa. Jende asko gaixotasun horiekin bizi da. Egun guztia pasatzen dute alkohol eta droga artean. Pena ematen du jendea horrela ikusteak eta ezin lagundu ahal izateak.

Ba al du antzik Azpeitiarekin?

Batere ez. Eguraldia, jendearen patxada, bizitzeko era... dena da oso desberdina. Hemen egunean egunekoarekin bizi gara.

Zer da faltan sumatzen duzuna?

Etxekoak, lagunak eta nire alboan egon den jende guztia, baita etxekoekin eta lagun artean egindako bazkari eta afari bikainak ere.

Aurrera begira, zein dira zure planak?

Orain oso gustura nago momentuan egiten dudan guztiarekin. Nahi nuen lasaitasuna aurkitu dut hemen. Inork ez daki zer gertatuko zaigun etorkizunean, eta garrantzitsuenak da momentua bizitzea.*



1. Alberdi, ezkerrean, zenbait bezerorekin egindako bisita gidatu batean 2. Hondartzan. 3. Playa del Carmeneko ur gardenetan.

8.042 kilometrora dago Playa del Carmen.



Inutilak

Inutilak. Ez zait besterik burura etortzen. Espainiako bi polizia, Espainiako poliziaren komisarian Euskal Herriko Gasteizen, Espainiako pasaporte eta Espainiako nortasun agiri nazional espainola egiteko bulegoan.

16:30ean dugu hitzordua, izerdia franko botata, kostata, etxetik kudeatu duguna, telefonotik. Hitzordua *citaprevia* izena duen webean ere lortu litekeela esaten dute polizia espainol horiek, baina gezurra da, zigorra merezi dute jendea gezurra esateagatik, denbora alferrik galarazteagatik, ernegatzeraino amorra-amorra eginarazteagatik. Telefonoz saiatu behar, hariaren bestaldeko errobotarekin behin eta berriz eta askotan saiatu behar, pasaporte eta nortasun agiri zikin hori berritze aldera.

Eta franko kostatuta lortutako hitzordua dugula inutil horietara joan, Espainiako poliziaren komisaria Euskal Herriko Gasteizen, eta ea nire ondoan datorren neskak, gure Mariak, zenbat urte dituen. Hamasei. Orduan, amak ere etorri beharra daukala, adin txikikoa dela Maria. Ez zuek bezain adin txikikoa, horratik, inutilak halakoak. Zorriak baino alferragoak. Espainiako polizia horiek Euskal Herrian. Eta ezin esan hemen gorrotagarriak direla, hortxe asmatu dute-eta gorrotozko delitua. Zernahi egingo luketela, alegia, lana ez beste, guri lagundu ez beste. Lanetik etxera etorri berria dela ama, Mariarena, ez duela etortzerik. Honezkerok, bazkaldu eta lokuluxkan dagoela. Hots egin eta esnatu egin behar harko dudala. Hobe huke heu esnatuko bahintz, alfer-harria baino alferrago haizen hori. Hitzordu petrala hartu zain eduki gaituk horixe esateko, hona etorri eta guraso biok etorri behar dugula? Aldegik hortik, inutil horrek.

Eta nola andrea ez den etorri, ez duen etotzeko asmorik, suminduta hura ere, pikutara Espainiako poliziaren komisariako bi polizia espainol horiek. Bizikletak hartu eta euska-



|||||||miel a. elustondo|||||||


|||Aspaldi esaten genuen,
doazela, doazela pikutara,
doazela hemendik, doazela
Espainiatik. Independentzia

razko publizitate handia egiten duen okindegira joan, pasta goxo batzuk erosi eta azkoitiarraren tabernara joan gaituzu, kafesne deskafeinatu bero bana hartzera, pastak lagunduta. Espainiako poliziaren komisariako poliziaren gorazarre.

Doazela pikutara

Aspaldi esaten genuen, doazela, doazela pikutara, doazela hemendik, doazela Espainiara. Independentzia. Behar-beharrezkoa dugu horietatik apartatzea, karga pisua besterik ez dira, trankil bizitzen ere ez digute uzten. Hain zaila ere ez da. Askoz ere hitzordu gehiago ematen ditu Osakidetzak aste batean Espainiako poliziak Gasteizko komisaria horretan urte osoan baino. Osakidetzaren hitzorduek behar bezala funtzionatzen dute, langileek lan egiten dute, Espainiako poliziak ez bezala. Ez dute ezer egiten, estorbuan egon besterik, gure dirua eraman besterik, osasuna galarazi besterik. Inutilak.

Ez zait besterik burura etortzen. Espainiako bi polizia, Espainiako poliziaren komisarian Euskal Herriko Gasteizen, Espainiako pasaporte eta Espainiako nortasun agiri nazional espainola egiteko bulegoan. Lepasamarretik gora Espainiatik. Hargatik hartu nuen nazionalitate Nevadako, Renoko Gerririk bezala. Adio Espainia, adio sekulako eta betiko. (Orain alaba zepo beretik ateratzen asmatu behar, ez Provincia Nacionalista Vasconok eta ez Bilatuk ez dute-eta gogotik ahalegintzeko asmorik).*



TiEN21 ESNAOLA

ZATOK
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com

ninaiz
yoga zentroa

Hatha eta Vinyasa praktika

EGUTEGIA

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA

10:00 - 11:20 | 18:30 - 19:50 | 20:20 - 21:40

Informazio gehiago:

ELIZ K/ 38, AZPEITIA

TEL./WAPP.: + 34 655 746 140 | NINAIZYOGA@GMAIL.COM

WWW.NINAIZYOGA.COM

